Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

2019ko Plangintza



www.egk.eus

Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz

Autonomía, 44 behea
Bilbao

Andia, 11 nagusia
Donostia

AURKIBIDEA

1. ETXEBIZITZA 6

1.1 GAZTEAK ETA EMANTZIPAZIOA 6

1.2 ETXEBIZITZA EREDU BERRIAK 9

1.3 MILAKA ELKARBIZITZA 11

1.4 EMANTZIPAZIO ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ERAGILEEKIN HARREMANA 13

1.5 ETXEBIZITZA DIRU LAGUNTZEN AZTERKETA 14

1.6 EGUNEROKO LANA 16

2. ENPLEGUA 19

2.1 GAZTEAK ETA EMANTZIPAZIOA 19

2.2 FORMAKUNTZA DUALA EZAGUTZEN 21

2.3 ENPLEGU ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ERAGILEEKIN HARREMANA 24

2.4 GAZTELABEL 25

2.5 IDEIA BAT DAUKAZU? Berrikuntza sozialeko proiektuak sortzeko formakuntza saioak ... 27

2.6 LAN ISTRIPUEN PROTOKOLOA 29

2.7 ENPLEGU ARLOKO DATA ESANGURATSUEN EGUTEGIA 31

2.8 EGUNEROKO LANA 32

3. HEZKUNTZA 35

3.1 ASTIALDI FOROEN KOORDINAZIOA 35

3.2 ASTIALDIKO IKASTAROEN KANPAINA 37

3.3 UDAKO KANPAINA 38

3.4 ASTIALDI FOROKO WEBGUNEA 39

3.5 ATERGUNE: ATERPETXE, LANDA ETA KANPINEN ATARIA 41

3.6 BOLUNTARIOTZA KANPAINA 2019 42

3.7 "HAZIAK ASTIALDIRA" HEZKIDETZA ASTIALDIAN LANTZEKO GIDA 44

3.8 HEZITZAILEENTZAKO GIDAK: DROGA-MENDEKOTASUN GIDA 46

3.9 HEZKUNTZA FOROA 46

3.10 HEZKUNTZA ERAGILEAK 47

3.11 ESKOLA KONTSEILUA 48

www.egk.eus

Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz

Autonomía, 44 behea
Bilbao

Andia, 11 nagusia
Donostia

3.12 GARRAIO TXOSTENA II 49
3.13 ADMINISTRAZIOEKIN KOORDINATU 50
3.14 EGUNEROKOTASUNA 51
4. PARTE-HARTZEA 52
4.1 EGK SENDOTZEN 53
4.2 #BILBOZAINTZEN GALDETEGIA 54
4.3 EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA 56
4.4 GIZARTE ALDAKETARAKO HERRITARTASUNA 58
4.5 OPEN GOVERNMENT PARTNERSHIP (OGP) EUSKADI 60
4.6 HEZITZAILEENTZAKO MATERIAL DIDAKTIKOA: DROGA-MENDEKOTASUNA 61
4.7 ARABAKO GAZTEEN LURRALDE KONTSEILUA 62
4.8 ERAGIN #PLAZANDRE 64
4.9 MAHAI INGURUA 64
4.10 MATERIAL ETA GELEN LAGAPENA 64
4.11 AHOLKULARITZA 66
3.12 EGUNEROKOA 68
5. BAKEA ETA BIZIKIDETZA 70
5.1 ETIKASI PROGRAMA 70
5.2 BAKE LANTALDEA 72
5.3 ISLAMOFOBIA 74
5.4 MIGRATZAILEEI BURUZKO AURREIRITZIEI PLANTO 76
5.5 *GAZTEON AUKERA* DOKUMENTALAREN DIFUSIOA 78
5.6 BAKETIKEN MAHAI INGURUAK 80
5.7 DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ETIKA APLIKATUKO ZENTROAREKIN LANKIDETZA 81
5.8 EGUNEROKOA 83
6.BERDINTASUNA 85
6.1 GAUR8 85
6.2 ZINE FORUM 87
6.3 I BERDINTASUN PLANA 89
6.4 GUNE ANITZA 90

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

6.5 BERDINTASUN PROTOKOLOAK 92
6.6 FESTETAKO ERASOEN AURRE DIAGNOSIA 94
6.7 MAHAI INGURUA 96
6.8 ERAGIN #PLAZANDRE 97
6.9 ISLAMOFOBIA 100
6.10 "HAZIAK ASTIALDIRA" HEZKIDETZA ASTIALDIAN LORATZEKO LANKETA 100
6.11 EGUNEROKOTASUNA 100
7. KOMUNIKAZIOA 102
7.1 DISEINATZAILE GAZTEEN LAN-POLTSA 102
7.2 PIZTU! BULETIN DIGITALA 104
7.3 SARE SOZIALAK KUDEATU 107
7.4 WEBGUNEEN MANTENUA 110
7.5 WWW.EGK.EUS WEBGUNEA KUDEATU 111
7.6 EGK EZAGUTARAZTEKO BIDEOAK 114
7.7 LAN-ARLOKA SAREA OSATU 115
7.8 GIZARTE ALDAKETARAKO HERRITARTASUNA 118
7.9 KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANA 119
7.10 BILBO YOUTUBER AUKERAKETA 121
7.11 BARNE KOMUNIKAZIOA 122
7.12 EGUNEROKOA 125
7.13 BESTE LAN-ARLOEKIN HARREMANA 126
8. PRESIDENTZIA 128
8.1. BATZORDE IRAUNKORRA 128
8.2. LAN TALDE TEKNIKOAREN KOORDINAKETA 130
8.3. BATZORDE EKONOMIKOA 132
8.4. EGK-ko BATZAR OROKORRA 134
8.5. ELKARLANA ETA ORDEZKARITZA 135
8.6. GAZTERIA LEGEA 145
8.7. GOBERNU IREKIA (OGP) 146

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

SARRERA

Jarraian, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) 2019 urtean aurrera eramango dituen proiektuak aurkezten dira, eta horiek, elkarlanean eta eragile ezberdinen ekarpenekin osaturik daude.

Proiektuak, alde batetik, lan-arlo bakoitzeko teknikarien lanaren bidez diseinatuta eta garatuta daude; eta bestetik, Batzorde Iraunkorraren jarraipena dute. Aldi beran, lan-arlo bakoitzaren lantaldeak eginiko ekarpenak beharrezkoak eta ezinbestekoak dira diskurtsoak sortzeko zein proiektuen norabideak definitzeko.

Diru iturriak bermatzeko, aldiz, erakunde publiko ezberdinekin akordioak eta lankidetza hitzarmenak sinatzen dira. 2018an honakoak izan ziren aipatutako baldintzak bideratu zituzten erakunde publikoak: Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritza eta Bake eta Bizikidetza Idazkaritza; Bizkaiko Foru Aldundia; Gipuzkoako Foru Aldundia; Emakunde; Bilboko Udala; Vitoria-Gasteizko Udala; Arabako Foru Aldundia eta Donostiako Udala.

Aurten ere, EGKren erronka nagusietako bat, EGKren ekintzetan parte-hartze gehiago lortzea izango da. Hala ere, parte-hartze horri bi ñabardura gehitu nahi zaizkio: alde batetik, emakume gazteen hitzek ekintza eta topaketetan isla handiagoa izatea; eta bestetik, parte hartzeko modu berriei garrantzia ematea.

EGKren ekintzek euskal gazteen artean eragina izan dezaten lanean jarraituko da. Eta **I Berdintasun Plana**ren haria berdintasuna zeharkako balore izateaz gain, identitate eta gorputz anitzen hausnarketa eta beharren lanketan jarraituko da. Horretarako, lanaren barne mailako etengabeko formakuntza ezinbesteko izango delarik.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

1. ETXEBIZITZA



Euskal gazteriaren artean emantzipazioaren gaia lehentasun handia duen gaia da. Emantzipazio prozesua lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuarekin hertsiki loturik doa, horregatik, orain arte lan-arlo bakarrean barnebiltzen ziren biak. Baina geroz eta gehiago dira bizitza proiektu propioa garatzeko gazteriak aurkitzen dituen zailtasunak eta horren baitan emantzipazio prozesuak berebiziko pisua du. Horregatik, EGK-k 2019rako lan-arlo propioa izateko apustua egin du eta etxebizitza eta enplegua lan-arlo bereiztuak izango dira.

Euskal gazteriaren emantzipazioa mahai gainean jarri eta berau ezagutu, aztertu eta lantzeko helburua duen lan-arloa da etxebizitzarena. Beti ere, gazteen kolektiboaz eta administrazioaren artean zubi lana eginez.

1.1 GAZTEAK ETA EMANTZIPAZIOA

Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza, enplegua eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Haatik, krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzea edo galtzea eta enpleguaren prekarietatearen arazoa orokortu egin da. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahastuz. Luze da EGKtik egoera horiek salatzen direla, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta lehenagotik pairatutako baldintzengatik ere.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Hori dela-eta, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza eta enplegu lantalde indartsu bat osatzea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helarazteko. Azken urteetan diskurtso sakon eta indartsua landu izan da, eta zenbait kargu politikoren aurrean garrantzizko eragile bilakatzea lortu da. Aurten, lantaldea indartzeko asmoarekin gazte kolektibo zein norbanako berriengana hurbiltzeko saiakera egingo da, lantzeko gai desberdinak planteatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteriaren perspektiba batetik gazteriarekin loturiko enplegu eta etxebizitza ekimenak eta neurriak aztertzea, administrazioari hausnartutako ondorioak helarazi ahal izateko eta horrela, politika publikoetan eragin.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte-elkarteak enplegu eta etxebizitza arloaren gainean batuko dituen eztabaida-gune bat ezartzea.
- Gazteriaren prekarietate egoeraren aurrean zein emantzipazio prozesuetan bizitegi-igarotze zuzenerako gazteriaren zailtasunaren aurrean, gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea, defendatzea eta alternatiba eta hobekuntza-proposamenak sortzea.
- Eztabaidagunean sortutako ekimenei jarraipena ematea eta horren funtzionamendua kudeatzea eta bultzatzea gazte berrien parte-hartzea lortuz.

Garapena

EKINTZAK:

Administrazioek garatutako enplegu eta etxebizitza politika publikoen kontrastea egin eta hobekuntza proposamenak sortu.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Lantaldearen koordinazioa.

Lantaldearen proposamenei jarraipena eman.

Lantaldearen bileren zabalpena egin gazte berriek parte hartu dezaten.

Urtearen ebaluazioa eta 2019ko plangintzaren onespena egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantaldearen funtzionamendua eta gazteen parte hartzea: deialdien arrakasta, hausnarketen sakontasuna, kideen proaktitbitatea eta proposatutako proiektuak.
- Egindako hausnarketen sakontasuna eta landutako ekimenen bideratzea.
- Administrazio eta kargu politikoen jarrera gazteen proposamen eta hausnarketen aurrean: eskatutako bilerak onartzen dituzten, eskaerak entzuten dituzten, hauek politika publikoetan barneratzen dituzten, etab.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

1.2 ETXEBIZITZA EREDU BERRIAK

Gaur egungo Euskadiko gazteen arazo handienetako bat emantzipatzeko ezintasuna da. Euskadiko bataz besteko emantzipazio adina 30 urteren bueltan dago, Europan aldiz, 26 urteren bueltan. Beraz, fokoa eredu berrietan eta batez ere, Europako ereduetan jarriz 2018ko **Euroemantzipatu** proiektuari jarraipena emango zaio.

Hainbat emantzipazio eredu mahai gainean jarri eta hauetan sakonduko da euskal gazteriaren eta euskal administrazioaren ekarpen eta moldaketa zeintzuk diren aztertzeko. Horretarako, lan teorikoa egingo da eredu hauek ezagutu eta aztertuz, eta hainbat profil batuko dira **Hiruburu** baten.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteen emantzipazio arloan dauden eredu berrien eta esperientzien azterketan sakontzea, bereziki, Europako eredu desberdinetan enfokaturik.

HELBURU ZEHATZAK:

- EAEko emantzipazio politiketan proposamen eta ekarpenak egitea.
- Eredu berri hauen gaineko gazte, teknikari eta politikarien iritzia ezagutzea eta ezagutaraztea.
- Administrazioa eta gazteriaren arteko zubi lana egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Eredu berriak aztertu eta landu, batez ere, fokoa Europan eta EAEn garatzen ari diren ereduetan jarriz.

Eredu hauen lanketa egin EAEko testuingurua kontuan izanik.

Emantzipazio formula berri hauek interpelatzen dituzten eragile edota gazteekin harremanetan jarri.

Eredu hauen inguruko iritzia eta ekarpenak jasotzeko **Hiruburua** antolatu: egitura prestatu, beharrezko materiala prestatu eta parte hartzaileekin harremanetan jarri.

Hiruburu dinamikaren zabalpena eta gauzatzea.

Hiruburu dinamikaren ondorioak aztertu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eredu berrien azterketaren sakontasuna.
- Aukera berri hauek EAEko testuinguruan dakartzaten aukeren posibilitatea.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Gazteen **Hiruburu**an erakusten duten interesa, prestutasuna, parte hartze maila eta hauek egindako ekarpenen aberastasuna.
- EGK-k eredu berri hauei buruz diskurtso bat eratzeko behar dituen irizpideak eskuratu izana.

1.3 MILAKA ELKARBIZITZA

Aurreko urtean EGK-k Donostiako Udalarekin elkarlanean Donostiako gazteek emantzipazio prozesuren egoera eta beharrak identifikatzeko #GaztEmantzipazioa **World Café**-*a* antolatu zuen. Topaketa hau ibilbide baten abiapuntua izan zen.

Gaiak Donostiako gazteen artean sortzen duen interesa ikusita, lan ildo beretik jarraitzeko asmoz, aurten **Milaka Elkarbizitza Hiruburua** antolatuko da. Horretarako, etxebizitzaren gaia ardatz harturik, gazteen emantzipazio eredu desberdinak jarriko dira mahai gainean emantzipazioaren inguruan aritzen diren agenteen (gazteak, teknikariak eta politikariak) iritzia jasotzeko eta ikuspuntuak elkarbanatzeko asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Europako emantzipazio eredu desberdinak landuz, Donostiako gazteei emantzipaziorako gaiarekiko interesa piztea eta eredu hauen inguruko hausnarketan sakontzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen emantzipazioaren inguruan aritzen diren agente, gazte eta eragileren arteko koordinazio eta hausnarketarako gune bat sortzea.
- Emantzipazioaren inguruko gazteen esperientzia eta iritziak jasotzea.
- Gazteak, teknikariak eta politikariak emantzipazio eredu desberdinen inguruan eztabaidatzeko eta hausnartzeko gune bat sortzea.

Garapena

EKINTZAK:

Hiruburuaren aurre lanketa: landuko diren edukiak landu.

Hiruburua prestatu: espazioa aukeratu, materiala bildu, edukia prestatu...

Hiruburu ekitaldiaren parte hartzaile interesatuen identifikazioa eta Hiruburuaren hedapena egin.

Hiruburua burutu.

Hiruburuaren ondorioak jaso.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Gazteen parte-hartze eta interesa.
- Emantzipazio eredu desberdinen hausnarketen gaineko sakontasuna.
- Administrazio eta gazteen arteko harremana.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

1.4 EMANTZIPAZIO ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ERAGILEEKIN HARREMANA

Emantzipazio alorrean eragile askok eta anitzek dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile guzti hauekin harremanetan egotea. Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoekin, gazteen iritzia transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren eta enpleguko arloan lan egiten duten elkarteen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan pertsona gazte berrien parte hartzea lortzea.
- EGK-ko elkarteen artean enplegua lantzen dutenekin harremana sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

Emantzipazio arloko agenteekin (elkarteak eta administrazioak) bilerak egin harremanak sendotzeko eta berriak egiteko.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

EGK-ko eta EGK-koak ez diren elkarteen artean gazteen parte hartzea bultzatu emantzipazio proiektuetan.

Emantzipazioaren arloan EGK-k landu ez dituen arazoak dokumentatu.

EGKrentzat interesgarriak diren proiektuetan eta jardunaldietan parte hartu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin biltzea.
- Egindako kontaktu berri kopurua.
- EGK eragile ezagun horien artean ezagutzera eman izana.

1.5 ETXEBIZITZA DIRU LAGUNTZEN AZTERKETA

Gazteen emantzipatzeko prozesua gero eta zailagoa bihurtzen ari den fenomeno bat da eta EGKn administrazioak gazteentzako bideratutako programekiko eta neurriekiko euskal gazteriak duen iritzia aztertu nahi da.

Gazteek programa hauekiko duten iritzia ezagutu nahi da. Izan ere, egon badaude gazteen emantzipazio prozesuarekin laguntzeko administrazio desberdinek dituzten programa eta neurriak, baina zein iritzi dute gazteek? Hauen berri modu argian jasotzen dute? Gazteen beharretara moldatzen dira? Nahikoak direla iruditzen zaie?

Galderei erantzuna ematea izango da proiektu honen helburua, honela, administrazioari proposamen eta ekarpenak egiteko bidea eraikiko baita.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Bizkaiko Administrazioak gazteentzat dituzten emantzipazio programen gaineko azterketa egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak administrazioak emantzipatzeko dituzten neurri eta programen inguruan duten iritzia aztertzea. Gazteen behar, nahi eta izan ditzaketen proposamenak mahai gainean jartzeko.
- Euskal gazteriaren eta Administrazioaren arteko zubi lana egitea.
- Administrazio eta gazteen artean dagoen harresia ikusgarri egitea.
- Administrazioaren neurri eta programak gazteen artean ezagutzera ematea.

Garapena

EKINTZAK:

Ikerketa lana. Bizkaiko lurraldeko administrazio maila ezberdinekin harremanetan jartzea eta gazteek emantzipaziorako dituzten programei buruz jakinaraztea.

Programa eta neurri hauek aztertu eta landu gazteekin landu ahal izateko.

Gazteen hitza zuzenean entzun ahal izateko World Café ekitaldia antolatu.

Ondorioak jaso eta landu. Gazteen iritzi eta ekarpenak jaso eta administrazioari helarazi.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Administrazioren programa eta neurri hauen gaineko informazioa lortzeko bidearen erraztasuna.
- Gazteak administrazioak emantzipatzeko dituen aukeren gaineko ezagutza.
- Administrazioak gazteen iritzi, ekarpen eta proposamenen aurreko erantzuna.

1.6 EGUNEROKO LANA

EGKn lan-arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak biltzen dira etxebizitza lan-arloaren egunerokoan, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren funtzionamendua bermatzea beste lan eremuekin elkarlan egiten eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Prentsarekin lan egitea hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak, Gazteria Legea eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egitea.
- Etxebizitza eta gazteriaren gaineko datu eguneratuak izatea.
- Beste lan-arloen lanaren kontrastea egitea.
- Lantaldearen formazioan parte hartzea.
- Lan-arloarekin zerikusia duten aholkularitzak egitea.
- Batzorde Iraunkorrarekin eta lankideekin harremana/lankidetza.
- Memoria eta Plangintza kudeatzea eta ebaluatzea.
- EGKren funtzionamendurako beharrezkoak diren bileretan parte hartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Prentsarekin lan egin hauek eskatzen dutenean..

Gazteria Planak, Gazteria Legea eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin. .

Beste lan-arloen lanaren kontrastea egin.

Egutegiak hala eskatzen duenean ekintza desberdinak burutu. .

Aholkularitza eman.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Memoriak eta 2019 urterako plangintzak prestatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Barne komunikazioa eta kalitateko kontrasteak.
- EGKren eguneroko lana eta funtzionamendu egokia.
- EGKren kanpo komunikazioa nolakoa den.
- Bileren eraginkortasuna.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

2. ENPLEGUA



Lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuak gazteen autonomia pertsonal zein kolektiboa zaildu eta berandutu egiten du. Independentzia materialaren gaineko haustura honek, bizitza proiektu propioa garatzeko baliabide ekonomikoen falta dakar, eta gazteen hiritartasuna guztiz ahultzen du.

Orain arte EGKn modu bateratuan landu izan dira euskal gazterian berebiziko garrantzia duten enplegu eta etxebizitza gaiak. Baina hauek duten pisuzko garrantzia dela medio, bakoitzak lan arlo propioa izateko hautua egin da. Beraz, enpleguko lan-arloan gazteen independentzia materialean, askatasunean eta bizitza kalitatean garrantzia handia duten alorrak landuko dira.

2.1 GAZTEAK ETA EMANTZIPAZIOA

Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza, enplegua eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Haatik, krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzea edo galtzea eta enpleguaren prekarietatearen arazoa orokortu egin da. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahastuz.

Luze da EGKtik egoera horiek salatzen direla, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta lehenagotik pairatutako baldintzengatik ere. Hori dela-eta, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza eta enplegu lantalde indartsu bat osatzea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helaraziz.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Azken urteetan diskurtso sakon eta indartsua landu izan da, eta zenbait kargu politikoren aurrean garrantzizko eragile bilakatzea lortu da. Aurten, lantaldea indartzeko asmoarekin gazte kolektibo zein norbanako berriengana hurbiltzeko saiakera egingo da, lantzeko gai desberdinak planteatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteriaren perspektiba batetik gazteriarekin loturiko enplegu eta etxebizitza ekimenak eta neurriak aztertzea, administrazioari hausnartutako ondorioak helarazi ahal izateko eta horrela, politika publikoetan eragiteko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte-elkarteak enplegu eta etxebizitza arloaren gainean batuko dituen eztabaida-gune bat ezartzea.
- Gazteriaren prekarietate egoeraren aurrean zein emantzipazio prozesuetako zailtasunen aurrean, gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea, defendatzea eta alternatiba eta hobekuntza-proposamenak sortzea.
- Eztabaidagunean sortutako ekimenei jarraipena ematea eta horren funtzionamendua kudeatzea eta bultzatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Administrazioek garatutako enplegu eta etxebizitza politika publikoen kontrastea egin eta hobekuntza proposamenak sortu.

Lantaldearen koordinazioa.

Lantaldearen proposamenei jarraipena eman.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Lantaldearen bileren zabalpena egin gazte berriek parte hartu dezaten.

Urtearen ebaluazioa eta 2019ko plangintzaren onespena egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantaldearen funtzionamendua eta gazteen parte hartzea: deialdien arrakasta, hausnarketen sakontasuna, kideen proaktitbitatea eta proposatutako proiektuak.
- Egindako hausnarketen sakontasuna eta landutako ekimenen bideratzea.
- Administrazio eta kargu politikoen jarrera gazteen proposamen eta hausnarketen aurrean: eskatutako bilerak onartzen dituzten, eskaerak entzuten dituzten, hauek politika publikoetan barneratzen dituzten, etab.

2.2 FORMAKUNTZA DUALA EZAGUTZEN

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

EGK-k 2018an burututako **#FormakuntzaDualaEzagutzen Hiruburuetan** berretsi zen moduan, Europa mailan erreferente den formazio eredu hau indar handiz errotzen ari da EAEn. Nagusiki lanbide heziketan ezarri da, baina unibertsitate mailan ere aplikatzen hasia da.

2018an Formakuntza Dualak EAEn duen garapena eta honek euskal gazteriarengan zein nolako eragina duen aztertzeari ekin ZION egk-K. Bide horretan abiapuntu hori garatu eta sakontzeko asmoarekin Formakuntza Dualaren garapena aztertuko du 2019an. Indargune eta ahulguneak identifikatu eta Formakuntza Duala burutu duten gazteen hitza erdigunean jarriko du administrazioari proposamen eta ekarpenak helarazteko asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- *#FormakuntzaDualaEzagutzen* ondorio-txostenaren jarraipen gisa, Euskadiko Formakuntza Dualaren egoeraren azterketa eta hausnarketan sakontzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Formakuntza Dualeko ikasleen iritzia erdigunean jartzea, ikusgarritasuna ematea eta administrazioek plazaratutako datuekin alderatzea.
- Profil desberdinak kontuan hartuta eta Formakuntza Duala ikasi dutenen esperientzian enfokatuta eskari eta proposamenak jasotzea administrazioari helarazi ahal izateko.
- Formakuntza honen indargune eta ahulguneak identifikatzea.
- Euskadiko Formakuntza Dualaren garapenari jarraipena egitea.

Garapena

EKINTZAK:

#FormakuntzaDualaEzagutzen ondorio-txostena abiapuntu izanik, Euskadiko Formakuntza Dualaren datuak eguneratu eta errealitatea ezagutu.

Formakuntza Dualeko elkarte, ikastetxe eta batez ere, ikasleekin harremanetan jarri.

Formakuntza Dualeko ikasleen iritzia jasotzeko eztabaida saioaren egitura eta materiala prestatu.

Eztabaida saioko parte hartzaileekin harremanetan jarri.

Eztabaida saioaren zabalkundea eta gauzatzea.

Eztabaida saioaren ondorioak jaso eta landu.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Aztertutako Formakuntza Dualaren garapenaren sakontasuna.
- Formakuntza Dualaren ikasleen iritzien aberastasun eta sakontasuna.
- Parte hartzaile kopurua eta hauek egindako ekarpenen aberastasuna.
- Ondorio puntuak administrazioari helarazi izatearen arrakasta.
- EGK-k Formazio Dualari buruz diskurtso bat eratzeko behar dituen irizpideak eskuratu izana.

2.3 ENPLEGU ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ERAGILEEKIN HARREMANA

Enpleguaren alorrean eragile askok eta anitzek dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile guzti hauekin harremanetan egotea. Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoen kasuan, gazteen iritzia hauengana transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren eta enpleguko arloan lan egiten duten elkarteen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan pertsona gazte berrien parte hartzea lortzea.
- EGK-ko elkarteen artean enplegua lantzen dutenekin harremana sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

Enpleguaren arloko agente ezberdinekin bilerak (elkarteak eta administrazioak)

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

harremanak sendotzeko eta berriak egiteko.

EGK-ko eta EGK-koak ez diren elkarteen artean gazteen parte hartzea bultzatu enpleguko proiektuetan, esate baterako, enplegua eta aniztasunari buruzko jardunaldietan.

Enpleguaren arloan EGK-k landu ez dituen arazoak dokumentatu.

EGKrentzat interesgarriak diren proiektuetan eta jardunaldietan parte hartu..

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin izandako bilkura.
- Egindako kontaktu berri kopurua.
- EGK eragile ezagun horien artean ezagutzera eman izana.

2.4 GAZTELABEL

GazteLabel ekimenaren baitan, EGK-k politika publikoak ebaluatzen ditu, hauek, gazteen behar eta eskubideetara ea egokitzen diren ebaluatzeko. Horrela bada, GazteLabel ziurtagiria ematen zaie.

Aurtengo honetan, GazteLabel martxan jartzeko bidea jarraituz, hasierako faseari ekingo zaio. Horretarako, formazio saioak eta kontraste lantaldea eratzeko urratsak emango dira. Honela, behin kontraste taldea eratuta, prozesuaren hurrengo urratsak emateko prest egongo litzateke. Aukeren artean, posible ikusten da Gasteizko Udalak 23 urtez azpiko gazteei bideratutako neurria den Hazia 23 programak GazteLabel ziurtagiria lortzeko prozedura burutzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteen perspektiba batetik eta administrazioarekin elkarlanean, gazteria politika publikoak ebaluatu eta kalifikatzeko sistema bat garatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- GazteLabeleko kontraste agente berriak formatzea.
- GazteLabeleko kontraste agente taldea eratzea.
- Programa hobetzeko proposamenak egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Kontraste agenteak formatu. Bai gazteak, zein administrazioko teknikariak.

Agente kontrasteen taldea sortu (gazteak eta teknikariak). Agente kontrasteekin bilera bat egin prozesua azaltzeko.

Ebaluatuko den neurriaren arduradunaren administrazioarekin harremanetan jarri eta prozesua hasteko beharrezkoak diren lehen dokumentuak landu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Formakuntza saioen parte hartzea eta eraginkortasuna.
- Kontraste taldearen nolakotasuna.
- Administrazio eta gaztengan izan duen harrera.

2.5 IDEIA BAT DAUKAZU? Berrikuntza sozialeko proiektuak sortzeko formakuntza saioak

Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Innobasquerekin egindako hainbat koordinazio bileratan behar nabari bat antzeman izan da: gazteek proiektuak sortzerako orduan zalantzak dituzte. Batez ere, berrikuntza sozialeko proiektuak sortzerako orduan zalantza hauek handitzen dira. Bide horri jarraiki, gazte elkarteei, gazteekin lanean dihardutenei edota gazteei zuzenduriko formakuntza jardunaldiak antolatu ziren 2018an. Hauen eraginkortasun nabaria dela eta aurten ere formakuntza saioak antolatzeko beharrari erantzungo zaio.

Jardunaldien antolaketa eta egituraketa Bizkaiko Foru Aldundiak, Innobasquek eta EGK-ko enplegu eta etxebizitza teknikariak elkarlanean burutu dute.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Berrikuntza sozialeko proiektu berri bat sortu nahi duten gazteei formakuntza saioen bidez tresna egokiak eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- BFAren berrikuntza sozialeko proiektuen dirulaguntzen programak ezagutzea, aztertzea eta ezagutaraztea.
- Gazteak berrikuntza sozialeko proiektuak egiteko ahalduntzea.
- Berrikuntza sozialeko proiektuen diru laguntzak eskatzeko irizpideak argitzea.

Garapena

EKINTZAK:

Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarte-proiektu berritzaileen diru laguntza aztertu.

Aurreko urteko planteamenduari hobekuntza proposamenak txertatu eta planteamendua osotu.

Formakuntza saioak prestatu.

Formakuntza saioen zabalpena egin.

Formakuntza saioak egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia



Ebaluazioa

- Formakuntza saioak proiektu berritzaileak sortzeko helburuak lortzeko egokitzapena.
- Parte hartzaileen kopurua eta asetasun maila.

2.6 LAN ISTRIPUEN PROTOKOLOA

EGK-k protokolo bat garatu zuen 2017an gazteen lan istripuen aurrean salaketa publikoa egiteko. Lan istripua Euskadin ematen den edo Euskadiko gazte bati eragiten –16 eta 30 urte bitartekoa– dion kasuetan aktibatzen da, langilea larriki zauritzen edo zentzen denean. Honen bitartez, istripuaren errudun den prekarizazioa salatzeko adierazpen publikoa egiten da.

2019an zehar protokolo hori genero ikuspegiarekin aztertu eta moldatuko da eta gazte baten lan istripu bat gertatuz gero, aktibatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Maiztasunez gertatzen diren eta gazteei bereziki jotzen dieten gertaerak eta haien arrazoiak publikoki salatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte langileen heriotza dakarten lan istripuen arrazoi diren egoera prekarioak eta bestelako lan baldintzak salatzea.
- Lan istripuen protokoloa genero ikuspegiarekin aztertu eta moldatzea.
- Gazteriaren duintasun sozioekonomikoaren oinarriak aldarrikatzea, lan baldintzak eta lan osasuna hobetzeko.
- Lan istripuen datuak jasotzen dituzten erakunde ezberdinekin harremanetan ipintzea.
- Arazoaren aurrean EGKren errefusa postura argia gizarteratzea.

Garapena

EKINTZAK:

Protokoloa eguneratu hurrengo urteko EGK-ko batzarrean aurkezteko.

Lan istripuen ondoriozko gazte heriotzen eta istripuen salaketa.

Protokoloaren genero ikuspegiko lanketa egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Ebaluazioa

- Balizko lan istripuak gertatutakoan jakinaren gainean egon izana eta prozedura hau hobetu izana.
- Protokoloa aktibatu izana beharrezkoa izan bada.
- Lan istripuen datuak jasotzen dituzten erakunde ezberdinekin izandako harremana.
- Lan istripuen genero ikuspegiko moldaketen prozedura.

2.7 ENPLEGU ARLOKO DATA ESANGURATSUEN EGUTEGIA

Enplegu inguruko erreibindikazioei lotutako nazioarteko egunak baliatzen ditu EGK-k bere mezua zabaltzeko. 2019an egutegi hori osatzen joango da eta data esanguratsuetan dagokion manifestua eta komunikazio kanpaina egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Urtean zehar enpleguarekin zer-ikusia duten data garrantzitsuak markatzea eta egun horietan manifestu edo diskurtsoa plazaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Data esanguratsuen garrantzia azpimarratzea eta gaur eguneko egoerarekin lotzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.
- EGK-n parte hartzea bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.

Garapena

EKINTZAK:

Emakume eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko Europako egunean (2018an otsailaren 22an) Ibilbide Moreak txostenaren zati bat berreskuratu eta egungo datuekin plazaratu eta atxikimenduak lortu.

Lan Osasunaren Nazioarteko egunaren manifestua berritu eta atxikimenduak eskatu. Lan Osasunaren Nazioarteko egunean manifestua zabaldu.

Maiatzaren 1ean, Langilearen Egunean gazteriaren egoera azaleratu.

Urriaren 7an, Lan Egokiaren eguneko manifestua eguneratu eta plazaratu..

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako kanpainen difusio maila eta hedapena.
- Komunikabide edo gizarte eragileen arreta deitu izana.
- Egun gehiago identifikatu izana.

2.8 EGUNEROKO LANA

EGKn arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren funtzionamendua bermatzea beste lan eremuekin elkarlana egiteko eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Prentsarekin lan egitea hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak, Gazteria Legea eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egitea.
- Beste lan arloen lanaren kontrastea egitea.
- Lan taldearen formazioan parte hartzea.
- Lan-arloarekin zerikusia duten aholkularitzak egitea.
- Batzorde Iraunkorrarekin eta lankideekin harremana eta lankidetza izatea.
- Memorien eta Plangintzen kudeaketa eta ebaluazioa egitea.
- EGKren funtzionamendurako beharrezkoak diren bileretan parte-hartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Prentsarekin lan egin hauek eskatzen dutenean.

Gazteria Planak, Gazteria Legea eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.

Beste lan arloen lanaren kontrastea egin.

Egutegiak hala eskatzen duenean ekintza desberdinak burutu.

Aholkularitza eman.

Memoriak eta 2019 urterako plangintzak prestatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Barne komunikazioa aproposa izatea eta kalitateko kontrasteak egitea.
- EGKren eguneroko lana eta funtzionamendu egokia bermatzea.
- EGKren kanpo komunikazioa erraztea.
- Bileren eraginkortasuna.

3. HEZKUNTZA

Pertsonen garapenerako ezinbestekotzat jotzen den osagaia da hezkuntza. Atal honek, bi lan-arlo biltzen ditu: hezkuntza ez-formala edo astialdia eta hezkuntza formala.

Hezkuntza ez-formala hezkuntza sistematik kanpo aurkitzen den arututako ikaskuntza-prozesuek osatzen dute. EAEko hainbat elkarte eta eragileen elkarlanerako gunearen bitartez, Astialdi Foroaren bitartez, EGK-k Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu. Aisialdi hezitzaileko elkartegintza indartu nahi da, balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak sustatuz.

Hezkuntza formalean, Unibertsitateko gazteen elkartegintza eta ikasle-ordezkaritzako egituren bitartez ikasleen beharrak, kezkak edo proposamenak jasotzen dira. Ondoren, errealitatearen azterketarekin batera, aldarrikapenak eta hobetzeko proposamenak adosten dira elkarren arteko ekimenak gauzatuz. Gazteen ahotsa entzuna izateko lanak egiten dira administrazio eta ikasleen arteko zubi lana burutuz.

3.1 ASTIALDI FOROEN KOORDINAZIOA

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Deskribapena

Astialdi Foroa EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio eta bitartekaritza, ekimenen oinarrizko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.

Lana bideratzeko, 3 Lurraldeetan banatzen da, bakoitzean foro bana dagoelarik. Denei eragiten dieten arloetarako ordea, guztiak biltzen dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Astialdi Foroko lantaldea koordinatzea eta sendotzea.
- Astialdiaren ikusgaitasuna eta aldarrikapena garatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Esperientziak elkartrukatzea.
- Erakunde publikoekin bitartekaritza egitea.
- Astialdiaren garapenerako proiektuak eta eztabaidak koordinatzea eta garatzea.
- Astialdiko eragileen eta foroen arteko sarea indartzea.
- Astialdi Foroei dagozkion kudeaketa-zereginak aurrera eramatea (deialdiak, aktak,...).
- Astialdi Foroetako kudeaketaren ebaluazio jarraitua burutzea hauen hobekuntza eta eraginkortasunean lan egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Hiru Astialdi Foroetako lan taldeak koordinatu eta foroen beharrei erantzun.

Tarteko ebaluazio saioak.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

2019ko plangintza zehaztu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ekintzak nola gauzatu diren.
- Helburuak nola bete diren.

3.2 ASTIALDIKO IKASTAROEN KANPAINA

Astialdiko ikastaroen eskaintzaren inguruko nondik norakoak gazteei helarazteko urtero bezala informazio kanpaina bat osatuko da. Hau **www.astialdiforoa.org** webgunean argitaratuko da gida interaktibo baten bitartez, bertan eskaintzen informazio espezifikoa jasotzeaz gain EAEko eskola bakoitzaren harremanetarako bideak eskainiko dira klik baten bitartez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EAEko ikastaroen berri ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdiko ikastaroen eskaintza web atarian jasotzea.
- Elkarteak eta astialdiko eskolak ezagutzera ematea.

Garapena

EKINTZAK:

Astialdiko ikastaroen informazioa bilketa.

EAEko ikastaroen zabalpena on-line formatuan.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Webguneko kontsulta kopurua ikastaroen zabalpenean zehar.

3.3 UDAKO KANPAINA

Udako Kanpaina astialdian boluntario gazteek antolatutako udako ekintzak ezagutzera ematea helburu duen kanpaina da. Bertan Astialdi Foroetako eragileez gain EAEko edozein astialdi taldeen ekintzen zabalpena burutzen da ahalik eta gida osatuena sortzeko.

Aurten ere udako eskaintza hau www.astialdiforoa.org webgunean jasoko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- Astialdi taldeek udan antolatzen dituzten ekintzak eta hauen eskaintzak jaso, antolatu eta gizarteratu.

Garapena

EKINTZAK:

- Datuen bilketa.
- Webgunean informazioa argitaratu.
- Kanpainaren zabalpena.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Udako ekintzen zenbatekoa.
- Udako kanpainaren zabalpena.
- Webgunearen bisita kopurua udako ekintzan zabalpenean zehar.

3.4 ASTIALDI FOROKO WEBGUNEA

www.astialdiforoa.org

www.astialdiforoa.org webguneari egonkortasuna eta mugimendua ematea da helburua. Erreferentziazko gunea bilakatu nahi da, horretarako arloko informazioa bertan jasoko da eta Facebook sare sozialaren bitartez zabaldu nahi da.

Astialdiarekin lotutako gaien bilaketarako gune garrantzitsua bilakatzen ari da gero eta bisita eta aholkularitza gehiago jasoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- Aisialdi hezitzailea zer den ezagutzera ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi Foroak aurrera eramaten dituen ekimen eta hausnarketak ezagutzera ematea.
- Egunero webgunearen jarraipena egitea.
- Astialdiko ekimenei dagokien aholkularitza kudeatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Webgunearen kudeaketa lanak.

Webgunearen kudeaketa antolatzeko lan-saio bereziak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urteko bisita kopurua.
- Webgunearen erabilgarritasuna eta egunerokotasuna.

3.5 ATERGUNE: ATERPETXE, LANDA ETA KANPINEN ATARIA:

2016ko urte amaieran Euskadiko gazte eta gazte elkarteen eskura dagoen aterpetxeen ataria sortu zen. Ordutik hona atariaren hobekuntzarako lanak egitea da asmoa bai bilatzaile bat txertatuz eta baita aterpetxeen kopurua handiagotuz. Horrela erreferentziazko baliabide bilakatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- atergune.astialdiforoa.org atariaren jarraipena burutzea (bisita eta erabiltzaile kopurua).

HELBURU ZEHATZAK:

- Aterguneren kudeaketaz arduratzea.
- Espazio berriak txertatzea eta akatsak zuzentzea.

Garapena

EKINTZAK:

Bilatzailearen jarraipena eta ebaluaketa.

Erabiltzaileentzako eskura egongo diren espazioak txertatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Espazioen identifikazioa eta atarian txertaketa.
- Atariaren bisita kopuruaren zenbatekoa.

3.6 BOLUNTARIOTZA KANPAINA 2019

Boluntariotzaren munduan egiten den lanari garrantzia emateko helburuarekin egiten da kanpaina hau, lan honen aitorpen, balioeste eta zabalpen bat garatzeko asmoz. Hezkuntza prozesu honetan oinarritutako esperientziak bildu eta argazki lehiaketa baten bitartez islatzea da urte honetako proposamena. Argazki erakusketa honetan, esperientzian oinarritutako faktoreek

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

hartuko dute parte eta ezingo da ahaztu hezkuntza eredu honen adierazle diren balio erantsiak transmititzeko aukera izango dela.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Hirugarren sektorean lanean aritzen diren elkarte eta eragileen aitorpena burutzea.
- Gazteek boluntariotzan duten papera balioestea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdiko eragile zein elkarte boluntarioei protagonismoa ematea.
- Boluntariotzaren grina piztea.
- Abenduaren 5a, Nazioarteko Boluntariotza Eguna gizarteratzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Lehiaketa kaleratu
- Proposamenak jaso
- Publiko egin
- Bozketak bideratu
- Sari banaketa burutu

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Ebaluazioa

- Lehiaketaren hedapena eta eragile ezberdinen inplikazioa.
- Parte hartzaile kopurua.
- Argazkien erakusleihoa.
- Bozketa.
- Sari banaketaren ekitaldia.

3.7 "HAZIAK ASTIALDIRA" HEZKIDETZA ASTIALDIAN LANTZEKO GIDA

2018an, Emakundeko eskaerei jarraiki, hezkidetza lantzeko proiektu bat burutu zen EGKn. Aurretiaz hezkidetzari buruz ezer landuta ez zegoenez, EAEko gazteek hezkuntza formalean ematen den hezkidetzari buruzko iritzi eta ezagutzak biltzen dituen dokumentu bat eratu eta aurkeztu zen: *BerdinHezi: hezkidetzarako lehen urratsak*.

2019an, hezkidetza astialdi-hezkuntzan nola ematen den ikusi nahi da. Alor honetan egon daitezkeen indargune eta hutsuneak identifikatu eta aurreko urtean egin zen bezala diskurtso bat eratzeko. Egindako hausnarketa horretatik abiatuta, gainera, astialdi-hezitzaileentzat baliagarria izango den material didaktiko bat sortzeko bidea ere egin nahi da. Hau, Astialdi Foroko kideekin elkarlanean egingo da eta berdintasun lan-arloarekin jardungo da lankidetzan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Astialdi-hezkuntzako esku-hartzea, hezkidetzak duen paperaren inguruan sakontzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- "BerdinHezi: Hezkidetzarako lehen urratsak" txostena astialdi foroari aurkeztea.
- Hezkidetzak astialdi-hezkuntzan gaur egun daukan errealitatea identifikatzea.
- Ateratako ondorio edo erradiografiatik, hezkidetza lantzeko praktikak zeintzuk lirateke hausnartzea eta partekatzea.
- Egindako hausnarketatik, astialdi-hezitzailearentzat baliagarria izango den materiala bideratzea eta sortzea.

Garapena

EKINTZAK:

Topaketen diseinua egin EGK-ko teknikarien arteko koordinazio bileren bidez.

Topaketak egin informazioa biltzeko eta lantzeko.

Topaketetan bildutako informazioa landu eta materiala garatu.

Materiala argitaratu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako topaketen kopurua eta hauetan ateratako etekina.
- Ateratako materialaren kalitatea eta erabilgarritasuna.

3.8 HEZITZAILEENTZAKO GIDAK: DROGA-MENDEKOTASUN GIDA

Proiektu hau parte-hartzeko lan-arloarekin elkarlanean egingo da. Memoriako atal horretan, zehazki 4.6 puntuan azalduko da sakonago.

3.9 HEZKUNTZA FOROA

Hezkuntza formalaren arloan, EGKren diskurtsoa eta bidea osatzen lagunduko duten ikasle elkarteekin, kontseiluetako ordezkariekin eta maila indibidualean parte hartzen duten gazteekin batera eztabaidarako guneari aktibazio eta egonkortze bat ematea da 2019ko asmoa.

Hauekin batera hezkuntza arloko gaiak eztabaidatu eta elkarren arteko adostasunean oinarritutako proposamenak lantzeaz gain, hezkuntza arloko proiektu zehatzak definitu nahi dira. Hezkuntza arlotik harremana eta elkarreragina sortzeaz gain, lan horren bitartez, hezkuntza arloko administrazioari gazteen egoerari buruzko proposamen zehatzak helaraztea da helburua.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Bitartekari lana burutzea: ikasleen kezka eta beharrak proiektu zehatzen bitartez lantzea, gerora hezkuntza formaleko instituzio eta arduradunei lan horretan jasotako ondorioak helarazi eta proposamen zehatzen bideratzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezkuntza formaleko elkarte eta eragileekin hezkuntza eztabaida gunea koordinatzea.
- Ikasleen arazoak eta kezkak jaso eta foroaren eztabaiden bitartez proposamen eta ekimenak bideratzea.
- Aurreko urtean emandako pausoetatik abiatuta taldearen definizioa eta honen eginkizunak guztion artean finkatzea.
- Foroak egonkortasun batekin lan egiten duela bermatzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Hezkuntza Foroa koordinatu eta bertako beharrei erantzun.
- Ikasleen arazoak eta kezkak jaso eta foroaren eztabaiden bitartez proposamen eta ekimenak bideratu.
- Foroaren egonkortasuna lortzeari begirako lanak egin.
- Ikasleentzako formakuntza eta aholkularitzaren gaineko proposamenak helarazi.
- Hezkuntza arloko eragileekin eta instituzioekin harremanak sendotu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Proposatutako proiektuen burutzea eta proposamenen zabalpena.
- Plataformaren funtzionamendua, bilera kantitatea eta kalitatea. Beste kideen proaktibitatea.
- Aldarrikapen eta diskurtsoen eragina (jendarte eta komunikabidetan).
- Administrazioarekin izandako bilerak.

3.10 HEZKUNTZA ERAGILEAK

Hezkuntza, EGK-ko lan-arlo bat den heinean, hezkuntza eragileekin egiten du lan bere egunerokotasunean. Hezkuntza sistema osatzen duten egitura, instituzio eta arduradunekin harremana mantentzea egunerokoan presente dago. Honekin batera, EGK ezagutzera emateko modu bat ere da harreman sare hau, arloko agente ezberdinen artean elkarlana eman dadin batez ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Hezkuntza sistema osatzen duten egitura, instituzio eta arduradunekin harremana sortzea eta EGK hezkuntza esparruan ezagutzera ematea.

Garapena

EKINTZAK:

Euskadiko Eskola Kontseiluko deialdietan parte hartu eta jasotako dokumentuen ekarpenak burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileretan parte hartu izana.
- Egindako ekarpen kopurua.

3.11 ESKOLA KONTSEILUA

Aurten ere, EGK-k, Euskadiko Eskola Kontseiluan unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusirik duten giza eragileek parte hartzeko organo gorenean

parte hartuko du. Bertan, EAE mailan irakaskuntza garatzen duten arauei eta irakaskuntzaren egoeraren inguruko txosten orokorrei ekarpenak egiten zaizkio, beti ere gazteen iritzia kontuan izanda.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Euskadiko Eskola Kontseiluko bileretan parte hartzea.
- Eskola Kontseiluko eztabaida eta dokumentuei ekarpenak egitea gazteen ahotsa helaraziz.

Garapena

EKINTZAK:

Euskadiko Eskola Kontseiluko deialdietan parte hartu eta jasotako dokumentuen ekarpenak burutzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileretan parte hartu izana.
- Egindako ekarpen kopurua.

3.12 GARRAIO TXOSTENA II

EGK-k, 2017.urtean atera zuen *Garraio gastuak aztergai* txostena. Honetatik abiatuta, hausnarketa konpartitu eta eguneratu bat egitea da urte honetako asmoa. Jaso eta bildutako

datuei jarraiki, ikasleekin iritziak konpartitu eta analisi honetan sakondu nahi da. Horrela, gazte erabiltzaileen ahotsak entzun eta berriz ere egoeraren analisia biltzeko.

Guzti honekin, gai honek gazteengan eta batez ere ikasleengan duen garrantzia analizatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-k, 2017. urtean ateratako *Garraio gastuak aztergai* txostenari erabilera eta balio bat ematea.
- Txosten honen ondorioak, hezkuntza formalean dabiltzan ikasleei aurkeztea eta honen inguruan burututako lanketa partekatzea.
- Gazte erabiltzaileen aldetik, gai honen inguruko analisian sakontzea.
- Garraioaren gaiak gazteengan duen garrantzia analizatzea.
- Egindako lanari jarraipena emango zaiola bermatzea.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Konpartitze lana edo analisia.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Izan daitezkeen obekuntzarako proposamenak.

3.13 ADMINISTRAZIOEKIN KOORDINATU

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Eguneroko gaiek eskatuta administrazioekin koordinazio lanak burutu: lan-saio eta bilerak, telefono deiak... Hezkuntza arloari dagokionez, Eusko Jaurlaritza eta EAEko aldundiak izango dira hartzaileak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Administrazioekin koordinazio egoki eta egonkorra bideratu.

Garapena

EKINTZAK:

Eusko Jaurlaritza eta Aldundiekin batera koordinazio lanak burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urtean zehar izandako informazio trukaketa.
- Elkarren arteko harremanaren ondoriozko koordinazioa.

3.14 EGUNEROKOTASUNA

Arlo bakoitzaren lan zehatzetatik aparte, teknikari bakoitzak egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar du: telefonoaren arreta eta deribazioa egin; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; materiala, dokumentazioa, eskutitzak, e-mailak... jaso artxibatu eta deribatu;

oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu...

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eramatea.

Garapena

EKINTZAK:

Egunerokotasuneko lanak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hobekuntzarako proposamenak jaso.

4. PARTE-HARTZEA



Parte-hartze arloa 2013ko uztailean sortu zen, EGK-ko batzar orokorrean onartutako **Indartzen** plan estrategikoan agindutakoa beteta.

EGK gazteriaren eta administrazio publikoen arteko zubia izaki, parte-hartze arloaren helburua politika publikoen lanketan gazteen parte-hartzea sustatzea da. Horretarako, planteatutako ekimenen bitartez parte-hartzea modu praktikoan sustatzeaz gain, gazteriaren parte-hartzearen errealitatea jaso, horren inguruko hausnarketa egin eta hobekuntzak proposatuko dira.

Arlo honek lan teorikoa eta praktikoa uztartzen ditu, beraz, lana bulegotik kanpo egingo da askotan.

4.1 EGK SENDOTZEN

EGKren barruak sendotzeko parte-hartze lan-arlotik burutuko den proiektua izango da. EGK osatzen duten elkarteekin bildu, beraien egoera aztertu eta ekarpenak jaso ostean, azken hauek EGKren lan dinamikan gehiago inplikatzeko proiektua da. Honez gain eta barne dinamika indartzen jarraituaz, lan-arloetako lantaldeak indartzea izango da proiektuaren beste erpin nagusia. EGKn dauden elkarteetako gazteak eta bertatik kanpo dauden elkarteetako gazteak lantaldeetara erakarriko dira.

Sozializazioarekin jarraituz, EGK-tik kanpo dauden elkarteekin harreman sare berriak sortzeko saiakera ere egingo da. Eragile hauek EGKren dinamika ezagutu eta beronen parte bihurtu daitezen.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko elkarte desberdinen egoera aztertzea. Azken hauek EGKren etorkizuneko proiektuetan eta lan jardunean parte-hartzera bultzatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko lan-arloetako lantalde desberdinak indartzea. Berauetan elkarte eta entitate desberdinen presentzia bermatzea.

- EGKren sozializazioan sakontzea. Bertan ez dauden eragile zein norbanakoekin harreman sareak sortzea.
- Elkarte berriak EGKn sartzeko eragitea.

Garapena

EKINTZAK:

EGK-ko eragile, kanpoko eragile edo interesa duen gazte ororekin bilerak eta harreman sareak sortuko dira urte osoan zehar.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Proiektu honetan elkarte andanarekin bilduko da EGK eta bide horretan EGKren indartze prozesu honen ebaluazioa urtea amaieran egingo da. Urte osoa erabiliko da indartze prozesu hau bultzatu eta harreman sareak sendotzeko.
- Urte amaierako ebaluazioan, batetik EGKren barne dinamika zein modutan garatu den ebaluatu beharko da, eta elkarteek 2017an baino gehiago parte hartu duten aztertu.
- Bestetik lan-arloetako lantaldeen egoera aztertuko da eta berauen dinamismoaren jarraipena egingo da.
- EGKra inguratu diren elkarte berrien inguruko balantzea egingo da.

4.2 #BILBOZAINTZEN GALDETEGIA

EGK-k Bilboko Udalarekin batera, Bilboko gazteen aisi ereduaren inguruan hausnartzeko **#BilboZaintzen** galdetegia sortu eta zabaldu du Bilboko gazteriaren artean. Aisi eredu jasangarriago bat eraikitzeko bidean gazteen iritzia jasotzea ezinbestekoa dela ulertuta burutu du EGK-k proiektu hau Bilboko Udalarekin. Galdetegi horrek emandakoarekin Bilboko gaueko aisiaren inguruko arazo eta erronkak aztertzen dituen diagnosi orokor bat egiten saiatuko da EGK, ostean hausnarketa guzti hauek Bilboko Udalarekin aztertu, eta arlo zehatz honetan hobekuntzak proposatze aldera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Bilboko aisi ereduaren, batez ere gauekoa, gazteen iritziak bildu eta praktika desegokiak gutxiagotzeko proposamenak identifikatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilboko Gazteriaren bozgorailua izatea.
- Administrazioa eta gazteriaren arteko zubi lana egitea.
- Bilboko gazteriaren aisialdi ohitura eta praktiken inguruan hausnartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Galdetegiaren bidez lortutako gazteen iritzi, ekarpen eta proposamenak identifikatu.

Identifikatutako proposamen asmo eta iritziak biltzen dituen txostena burutu.

Txostena eta beronen edukiak Bilboko Udalari aurkeztu eta bide berean udalarekin doikuntzak egituratzen saiatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bilboko Udalak proposatutako irizpideen araberako balorazioa egingo da.
- Gazteenganako irismen maila eta beraien ekarpen kopurua aztertuko dira.

4.3 EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA

Aurten ere, Parte-hartze teknikariak Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren hautaketa batzordean parte hartuko du. Hurrengo betebehar hauek izango ditu: deialdian parte hartu duten pertsonen lehen hautaketa egitea lehenengo hautaketa gainditu dutenekin egingo diren informazio eta hautaketa jardunaldietan parte-hartze aktiboa izatea, parte-hartze dinamikak martxan jartzea eta kooperazio proiektuak burutu ostean, esperientziaren ebaluazioan parte-hartzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Kooperazio proiektuetan parte hartuko duten gazteak hautatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutzea eta interesa agertu dutenekin harremanak finkatzea.
- Euskadiko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.
- Lankidetzaren baloreak Euskadiko gazteen artean sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Lehen hautaketa egiteko jardunaldia.

Hautaketa jardunaldiak.

Informazio jardunaldiak.

Ebaluazio jardunaldiak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eusko Jaurlaritzak proposatutako irizpideen araberako balorazioa egingo da. Bestetik gazteekin edukitako hartu-emanen inguruko irakurketa egingo da.

4.4 GIZARTE ALDAKETARAKO HERRITARTASUNA

Parte-hartze teknikariak Deustuko Unibertsitateko Gizarte Aldaketarako Herritartasuna irakasgaian parte-hartzeko aukera izango du Alboan elkarteko kideekin batera. Teknikariaren ardura irakasgaian zehar ikasleak laguntzea eta aholkatzea izango da. Honen bidez, herritarren parte-hartzearen inguruko lanketak eta hausnarketak ikasleekin lantzeko espazio bat eraikiko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko unibertsitateko ikasleak aholkatzea herritarren parte-hartzearen inguruko eragin plan txiki bat diseinatu, burutu eta ebaluatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesgarriak izan daitezkeenekin harremanak egitea.
- Euskadiko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Irakasgaian zehar, ikasle taldearekin zein irakaslearekin bildu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Proiektuaren ebaluazio irizpideak irakasgaian ezarrita daudenak izango dira. Bestetik proiektuaren balorazio orokortu bat egingo da irakasle zein ikasleekin.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

4.5 OPEN GOVERNMENT PARTNERSHIP (OGP) EUSKADI

Goberu Irekirako Aliantzak (Open Government Partnership – OGP) Euskadi hautatu du Tokiko Gobernuen Programan parte hartuko duten mundu osoko 20 eskualdeen artean. Hautagaitza batera aurkeztu zuten Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundi eta hiriburuetako Udalek. Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziak, EGK-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta Euskadiko Elkarlan Zuzenbidearen Elkarteak ere babestu zuten hautagaitza.

Gobernu Irekirako Aliantza erreferentziako nazioarteko erakunde bat da eta gobernu "irekiagoak, arduratsuagoak eta herritarrekiko sentikorragoak" sustatzeko tresnak garatzea eta ebaluatzea da bere helburua.

Prozesu honetan hainbat dinamika eta konpromiso zehaztu dira, Euskadiko erakunde publiko desberdinak geroz eta gobernu eredu irekiagoen bidean jartzeko. Hau hórrela EGK-k konpromiso eta helburu desberdinak lortzeko bidean burutuko diren ekimen hitzaldi eta prozesu desberdinetan parte hartzeko ardura izango du, berauetan gazte perspektibaren balioa eta grina txertatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Euskal Erakunde Publikoek gobernu irekiaren filosofiaren baitan aurrerapausoak ematea eta erakundeak herritarrengandik geroz eta gertuago egotea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Geroz eta gardenagoak izan nahi duten erakundeen bidelagun izatea.
- Prozesu guztian zehar gazte perspektiba txertatzea.
- Prozesu honek berean duen balioa gazteriaren artean sozializatzea eta zabaltzea.

Garapena

EKINTZAK:

Open Government Partnership (OGP)-ren baitan antolatzen diren jardunaldi eta ekimen desberdinetan gazte erakunde bezala gure ekarpenak egitea.

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

4.6 HEZITZAILEENTZAKO MATERIAL DIDAKTIKOA: DROGA-MENDEKOTASUNA

Droga-mendekotasunaren gainean hezitzaileak duten materiala azterturik eta gaur egungo gizartearen beharrak kontutan harturik, gai hau lantzeko baliabideen gabezia aurkitu zen 2016. urtean.

Hori guztia kontutan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiarekin (BFA) batera gai horren inguruan hezitzaileentzako informazioa eta prebentziorako tresna eraginkor bat izango zen material didaktikoa sortzea erabaki zen. Hau da, Droga-mendekotasunari buruzko materiala sortu hezitzaileentzako erreferentziako baliabideak izateko helburuarekin.

Proiektu hau hezkuntza lan-arloarekin eramango da aurrera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Droga-mendekotasunaren arloan hezkuntza ez-formalean biltzen diren eragileei esku hartzeko baliabide bat sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Droga-mendekotasunaren prebentzioan sakontzea.
- Droga-mendekotasunaren aurrean hezkuntza alternatibak egikaritzea.
- Elkarteek eta hezitzaileek gaian sakontzeko lan-tresna izatea.

Garapena

EKINTZAK:

Material Didaktikoaren aurre zirriborroa sortu.

Material Didaktikoaren aurre zirriborra Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztu.

Bizkaiko Foru Aldundiaren doikuntzak txertatu eta material didaktiko definitiboa egikaritu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Droga-mendekotasunari buruzko gaiaren inguruan sortzen den gogoeta.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren irizpideen araberako ebaluazioa egingo da.

4.7 ARABAKO GAZTEEN LURRALDE KONTSEILUA

Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean eraturiko Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluan parte hartuko du EGK-k, Lurralde Historikoko zenbait gazte eragile eta profesionalekin batera. Denen artean Arabako Foru Aldundiak proposatutako gazteria politiken kontrastea egingo da.

Bertan EGK-k gazte eragile bezala bere ekarpenak egingo ditu. Bestalde, Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluan parte-hartzeaz gain, EGK-k entitate berri honen zabalpena eta sozializazioa sustatuko du Arabako eragileen artean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Arabako Foru Aldundiak garatzen dituen gazteria politikak kontrastatuko dituen Lurralde Kontseiluan parte-hartzea eta ekarpenak egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen ikuspegitik Arabako Foru Aldundiaren politika publikoak aztertzea.
- Administrazioarekiko gertutasuna sustatzea.
- Arabako gazteen ahotsa Foru Aldundiaren politiketan islatzea.
- Profil anitzeko pertsona gazteek osatutako kontseilu bat osatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluan parte hartu. Honen zabalpenean lagundu.

KRONOGRAMA:

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- EGK-k Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluaren jarraipena egingo du Arabako Foru Aldundiarekin batera. Beronek gazteria politiketan duen eragina ebaluatuko da, baita eragile eta profesionalek bertan duten parte-hartzea ere.

4.8 ERAGIN #PLAZANDRE

Proiektu hau berdintasun lan-arloarekin elkarlanean egingo da. Plangintza garatuko atal horretan, zehazki 6.7. puntuan, azalduko da sakonago.

4.9 MAHAI INGURUA

Proiektu hau berdintasun lan-arloarekin elkarlanean gauzatuko da. Plangintza garatuko atal horretan, zehazki 6.8. puntuan, azalduko da sakonago

4.10 MATERIAL ETA GELEN LAGAPENA

Material eta gelen mailegua EGK-k gazteei eta gazteen elkarteei eskaintzen dien zerbitzuetako bat da.

Eskaerak jasotakoan, ezarritako prozedura estandarizatua jarraitu behar da materiala zein gela lagatzeko. Parte-hartze teknikariaren lana da maileguen jarraipena egitea eta material eta gelen erabilera sustatzea, eta berori baliatu behar da EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteei eta gazteen elkarteei beraien ekimenetarako material desberdinak eta espazioak eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzea.
- EGKren material eta bulegoen erabilera gazte elkarteen artean geroz eta gehiago sustatzea.
- Eskaintzarako ditugunen (katalogo, ziurtagiri, informazio orri) diseinua gaurkotzea.

Garapena

EKINTZAK:

Lagapenak eskariak daudenean.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Utzitako material eta baliabideen egoeraren gaineko jarraipena.
- Urtean zehar egindako lagapen kopurua aurreko urteetakoekin alderatzea.

4.11 AHOLKULARITZA

Parte-hartze teknikariaren eguneroko lanetariko bat da; gazteek zein elkarteek aurkeztutako kexak, proposamenak eta zalantzak entzun eta irtenbideak proposatzea.

Aldi berean, garrantzitsua da, ahal den heinean, sare ezberdinetan parte-hartzea; horietan aurkeztutako ideiak jasotzeko zein EGKren ideiak helarazteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteek zein elkarteek aurkeztutako kexak, proposamenak eta zalantzak entzun eta irtenbideak proposatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Sare ezberdinetan parte-hartzea; horietan aurkeztutako ideiak jasotzeko zein EGKren ideiak helarazteko.

Garapena

EKINTZAK:

Aholkulari lana.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ebaluazio irizpide nagusiak egindako aholkularitza zerbitzuen kopurua eta berauen edukia.

- EGKren parte ez diren elkarte eta eragileekin egindako kontaktua, eta, harreman horien bilakaera.

3.12 EGUNEROKOA

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbestekoak dituzte barneko nahiz kanpo koordinaziorako bilerak. Baita urtean zehar ager daitezkeen bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukera ere. Gainera, lan-arlo honen kasuan, bere zeharkakotasuna dela eta, EGK-ko gainontzeko lan-arloekin izan beharreko koordinazioa ia etengabea da, baita kanpoko elkarte, eragile eta administrazioekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko beste lan-arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraikitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egitea.
- Beste lan-arloei gazteen parte-hartzearekin laguntzea.
- Urteko plangintza eta memoria egitea.
- Hedabideetan agertzea hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte hartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Urteko plangintza prestatu.

Bilerak.

Memoria egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urte osoko plangintzaren jarraipena eta barne komunikazioa.

5. BAKEA ETA BIZIKIDETZA

2019an Bake eta Bizikidetza lan-arloaren helburu nagusia Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin sinatutako hitzarmena jorratzen jarraitzea da. Honetarako proiektu propioak eta gainerako lan-arlo batzuekin proiektu bateratuak egingo dira, gazteekin giza eskubideen eta bizikidetzaren aldeko hausnarketak eta lanketa eremuak garatuz.

Aurreko urtean egin zen plangintzaren jarraipena izango dira antolatutako proiektu batzuk, garrantzitsuena **Etikasi** izanik. Programa hezitzailearen bigarren urtea izango da 2019a eta gazteek lehen aldiz izango dute Programan parte hartzeko aukera. Bakea eta bizikidetzaren baitan dauden beste gai batzuk ere landuko dira aurten, jardunaldi eta topaketa desberdinekin gazteen ikuspuntu eta hausnarketak jasoz.

Jarraian garatutako plangintzan 2019rako prestatutako topaketa eta jardunaldi desberdinak zehazten dira.

5.1 ETIKASI PROGRAMA

Aurreko urtean hasitako Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin koordinatutako proiektuarekin jarraituko da. 2019an Proiektu Pilotoa egingo da, eta Batxilergoko eta Lanbide Heziketako Erdi edo Goi Mailako zein Unibertsitateko lehen mailako ikasleek parte hartzeko aukera izango dute. Giza eskubideen urraketa sufritu duten beste lurralde batzuetara bidaia hezigarriak eginez etikari eta giza eskubideei buruzko hausnarketa eta ikasketa sustatzea da Programaren helburua.

30 ikasleko bi taldek parte hartuko dute, Batxilergoko ikasleek Auswitch (Polonia) bisitatuko dute eta Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasleak berriz Ipar Irlandara joango dira. Bidaia egin aurretik ikasle bakoitzak gaiaren lanketa egin beharko du, eta itzultzerakoan ere bidaian ikasitakoarekin Euskadin gertatutakoari buruzko ondorio kritikoak atera beharko ditu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Proiektu Pilotua haurrera eramatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Proiekturako antolakuntza eta ebaluazioa egitea.
- Ikasleen hautaketa egitea.
- Formakuntza prestatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Etikasiren aurkezpena eta 2019ko jardueren eta bidaien antolaketa.

Parte-hartzaileen hautatze-prozesua.

Ikasleei bidaien aurreko formakuntza ematea (Irenerekin).

Auschwitz eta Belfasterako bidaiak egitea.

Gazteekin ebaluazioa (bidaiaren osteko lana) egitea.

Proposamenaren ebaluazioa egitea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Programa pilotuaren diseinuari aldaketak eta zuzenketak egitea.
- Formakuntza datorren urteetarako egokitzea.
- Egingo diren bisiten eta tailerren aukeraketa moldatu datorren urteetara begira aldaketak egin nahi badira.
- Europako beste leku batzuetarako bidaiak egiteko kontaktuak egiten hasi etorkizunerako.
- Hurrengo urteetarako programa aurrera ateratzeko behar diren aldaketak egin.
- Barne memoria bat egin pausoz pauso egin diren gauzak ondo dokumentatuak uzteko.
- Eskola eta ikasleen arteko parte hartzea sustatzea.
- Programaren ezagutaraztea bermatu komunikazio kanpaina eta euskarri desberdinak erabiliz.

5.2 BAKE LANTALDEA

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Aurreko urteetan zehar sortutako lantaldeari jarraipena eta zabalkundea egiteko deialdia zabalduko da. 2018an egin zen bezala, urte honetan ere Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren arabera, egungo euskal gizartean azaleratuz doazen erronka berriak landuko dira lantaldean. Horien artean diskriminazio forma berriak, errefuxiatuen egoera edota bizikidetzarako erronkak landuko dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteentzat gai hauei buruz hitz egiteko espazio erosoak sortzea.
- Gai berriei buruz hitz egiteko aukerak sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bake lantaldea berpiztea, horretarako gai berriak planteatuz (erlijio eta kultura aniztasunean sakonduz, adibidez).
- Erlijio aniztasunaren erronkari aurre egiteko gazteen planteamenduak jasotzea, baita erronkari buruzko diagnosia egiteko ere. Erlijio aniztasuna genero ikuspegitik lantzea estereotipoak hausten laguntzeko.

Garapena

EKINTZAK:

Bilerak hilero.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantaldeari gehitutako gazte berrien kopurua.
- Lantaldearen lanaren zabalpena.
- Urtean zehar egindako saio kopurua.
- Lantaldean parte hartzen duten gazteen profilaren aniztasuna.
- Lantaldearen proposamenen kalitatea.

5.3 ISLAMOFOBIA

Bizikidetza eta berdintasuna ardatz duen gizarte batentzat, erlijioan oinarritutako bazterketa edo arbuioak egoteak ardatz horiek kolokan jartzen ditu. Honen aurrean gazteekin egin behar den lanketa sakona da, bakearen kultura daukan gizarte baten aldeko apustua eginez. Horretarako, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin sinatutako hitzarmenean bizikidetza sustatzeko eta bermatzeko egin beharreko pauso bat gehiago da honako proiektu hau.

Berdintasunaren lan-arloarekin batera egingo den proiektu honetan, Islamofobiaren gaia marko orokortzat hartuta, EAEko gazteekin gai konkretuak jorratuko dira. Bertan, emakume musulmanek sufritu ditzaketen islamofobia kasuei buruz hausnartuko da esaldi, galdera, ikus-entzunezko materialak edota bestelako materialak erabiliz. Talde txikietan gaiari buruz hausnartu eta hitz egin ondoren, etorkizunerako erronkak eta hauei aurre egiteko proposamenak jorratuko dira gazteekin. Metodologia parte-hartzaileak erabiliz gazteekin hausnarketa landuko da, beti ere islamofobiak dauzkan erronkei aurre egiteko proposamen eta ideiak garatzen saiatuz.

Proiektu hau berdintasun lan-arloarekin batera burutuko da.

Helburuak

<u>HELBURU OROKORRA:</u>

- Ikuspegi eraikitzaile batekin, erlijio musulmaneko emakumeek, emakume eta musulmanak izateagatik dauzkaten erronkak identifikatu eta gazteekin islamofobiari buruzko trukea sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteekin islamofobiari buruzko trukea sortzea.
- Emakume musulmanei buruz ditugun aurreiritzien lanketa bat egitea.
- Genero ikuspegitik, emakume eta musulman izateagatik dauzkaten erronkak identifikatzea.
- Islamofobiari aurre egiteko genero ikuspegia kontuan duten proposamenak gazteekin lantzea eta eztabaidatzea.
- EGK-k gai honekiko duen diskurtsoa eratzea.

Garapena

EKINTZAK:

Plangintza egin.

Marko teorikoa erabaki eta landuko diren gaiak aukeratu.

Topaketaren diseinua prestatu eta antolatu.

Topaketa egin.

Txostenaren prestaketa eta argitalpena.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia



Ebaluazioa

- EGKren diskurtsoan izan duen eragina.
- Parte hartzaileen iritzien arabera etorkizuneko lan-ildoak.
- Gazteek islamofobiaren aurrean duten iritzia eta ikuspegia.
- Gazteekin gaiari buruzko izandako lanketa.

5.4 MIGRATZAILEEI BURUZKO AURREIRITZIEI PLANTO

Gizartean orokorrean migratzaileekiko aurreiritziak daudela baieztatu daiteke, eta honek bizikidetza baketsua lortzeko bidea oztopatu besterik ez du egiten. Beti egon dira migrazio fluxuak, eta horien ondorioz pertsona batzuk ez dira dagoeneko lehen belaunaldiko migratzaileak. Argi dago EAE pasaleku dela migratzaile askorentzat, baina ez dira gutxi hemen gelditzea erabakitzen dutenak.

Hori kontuan izanda, migratzaileei buruz sortu diren aurreiritziak deseraikitzeko lana egin behar da. Baina etorkizunera begira hauek saihesteko faktoreen analisia eta azterketa egitea ere oso garrantzitsua da hausnarketa kritikoak sortuz. Honetarako gazteekin gaiari buruzko hausnarketa eta lanketa bat egin nahi da dagoeneko gurean diren, pasako diren eta etorkizunean gelditzeko iritsiko diren pertsonen eskubideak errespetatzeko konpromisoa hartuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Migratzaileekiko aurreiritzi xenofobo eta arrazistei aurre egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Aurreiritzi horiek deseraikitzeko lanketa egitea.
- Azken aldian gizartean egon den iritzi aldaketa nabariari buruzko (edota gailendu diren iritzi berrien zabalkundeari buruzko) hausnarketa egitea.
- Faktorekako analisia egin eta erronkak identifikatzea.
- Gaiari buruzko EGKren diskurtsoa sortzea.

Garapena

EKINTZAK:

Ekintzaren diseinua eta erabiliko den materiala erabakitzea.

Ekintza nagusia egin.

Ekintzaren ebaluazioa egin.

Txostena prestatu.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Gazteen parte hartzea.
- Erronken identifikazioa eta aurre egiteko proposamenak.
- EGKren diskurtsoaren aberastasuna eta ezagutza.
- Sustatutako hausnarketak.

5.5 *GAZTEON AUKERA* DOKUMENTALAREN DIFUSIOA

2014-2016 urtetan bake hitzarmenaren baitan burututako proiektuetan gazteek egindako ekarpenak instituzioei, komunikabideei eta gizarteari helarazteko helburuarekin *Gazteon aukera* dokumentala prestatu zen. 2018an zehar materialaren zabalpenarekin hasi zen arren (zinemaldiak, telebista, kongresuetan aurkezpena...), dokumentalak erakusten duen informazioa zabaltzeko EAEko herrietan mahai inguru eta topaketak eginez zabaltzen jarraituko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EAEko herrietan dokumentalak jasotzen dituen informazio eta ondorioak ezagutaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana ezagutaraztea.
- Memoria lantzen ari diren udalekin topaketak antolatu eta gazteen iritzia ezagutaraztea.
- Memoria lantzen ari diren beste erakunde eta administrazioekin elkarlana sustatzea.
- EAEko gizartera dokumentalean jasotako informazio eta ondorioak helaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

EAEko udaletxe eta eragile desberdinekin difusioa zabaltzeko hitz egin.

Dokumentala zabaltzeko topaketak eta mahai inguruak egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Mahai inguru desberdinetan izandako parte-hartzea.
- Dokumentalaren difusiorako bide berrien azterketa.
- Erakunde eta administrazio berriekin izandako elkarlana.
- Mahai inguruetara erakarritako jendea.
- EGKren lanaren zabalpena.

5.6 BAKETIKEN MAHAI INGURUAK

Baketik erakundeak memoria, bakea eta bizikidetza landu ditu EAEko udalerri desberdinetan. Horretarako, udaletxeekin herri bakoitzean gertaturikoaren azterketak egiteaz gain, mahai inguru eta ekitaldiak antolatzen dituzte herritarrekin memoriaren gaiari buruz hitz egiteko.

Honen harira, gazteen ikuspuntua eta ezagutzak jakin nahi dituzte, eta horretarako EGKri Gipuzkoako ekitaldi desberdinetan parte hartzea eskatu diote Iker Uson ikerlari eta irakaslearekin batera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteok memoriari buruz dakiguna jakinaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k gazteekin memoriari buruz egindako lanketak zabaltzea.
- EGK eta lan-arlo honetan egindako lana ezagutaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

Topaketa Lasarte-Orian.

Topaketa Elgoibarren.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- EGK ezagutzen ez dutenek, Kontseiluak egindako lan eta ekintzen berri izatea.
- Gazteek memoriari buruz dakitenaren ikerketen emaitzen zabalpena.
- Erakunde desberdinekin erlazioa.

5.7 DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ETIKA APLIKATUKO ZENTROAREKIN LANKIDETZA

Deustuko Unibertsitateak bertako ikerlari desberdinekin Etika Aplikatuko Zentro bat dauka, eta bertan egiten diren ikerketetan gazteen ezagutzak eta ikuspuntuak kontuan hartu nahi dituzte. Horretarako, 2018an EGKrekin kontaktuan jarri zen 2019ra begira batera lan egitea proposatuz.

Proiektua ez dago oraindik zehaztuta, beraz elkarlanean ikerketak, hausnarketak edota bestelako ekintzak egitea planteatu nahi da. 2019an zehar proiektua aurkeztuko du Unibertsitateak, eta EGK-k egin beharko luken lana zehaztu beharko da, etorkizunera begirako lankidetza oinarritzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Zentroak egiten dituen lanetan parte hartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Deustuko Unibertsitatearekin hitzarmena sinatzea etorkizunera begira lankidetza zabaltzeko.
- Gazteekin EGK-k egindako lana aurkeztea eta azaltzea.

Garapena

EKINTZAK:

Lehen informazio bilera eta proiektuen aurkezpena.

Zentroko ikerketetan parte hartzea eta gazteen ikuspuntua eta hausnarketak erakustea.

Hitzarmen bat sinatzeko negoziazioak hastea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hitzarmenen sinadura.
- Etika Aplikatuko Zentroko ikerketen parte-hartzea.
- EGKren lanaren zabalpena.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

5.8 EGUNEROKOA

EGKren lan-arlo bakoitzean egiten den lanaz eta proiektuez gain, Kontseiluaren eguneroko funtzionamendua bermatzeko bestelako ekintzak ere egin behar dira. Honen barruan sartu daitezke ondorengo ekintzak, horiek gabe EGKren egunerokotasuna kolokan gelditu daitekeelarik: bilerak, aholkularitza eta bulegoa kudeatzeko lanak, memoriak, proiektuak aurrera eramateko gestio desberdinak edota datorren urterako plangintza.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren eguneroko lanaren normaltasuna bermatzeko behar diren lanak burutzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilerak, bulegoa kudeatzea, memoriak, gestio orokorrak eta aholkularitza modu eraginkor batean egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Egoitzako kudeaketa lanak.

Lantaldearekin eta kanpoko eragileekin bilerak.

Urteko proiektuen ebaluazio eta justifikazioa.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

2019ko Memoriak eta 2020ko Plangintza prestatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lan-arloari egiten zaizkion eskaera desberdinei erantzun egokia ematea.
- Lana hobetzeko egiten diren ekarpenak jasotzea.
- Eguneroko lana era egokian kudeatzea.
- EGK-ko beste lan-arloetako proposamen eta lanei balorazio erabilgarriak ematea eta ekintzetan parte hartzea.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

6.BERDINTASUNA



Ondoren EGK-k 2019an Berdintasun lan-arlotik aurrera eramango dituen proiektuak ageri dira. Hauek dira proiektuak urrenez urren: Gaur8, Berdintasun Protokoloak, I. Berdintasun Plana, Gune Anitza, Festetako erasoen aurre diagnosia, Eragin #Plazandre eta mahai ingurua.

Bertan ikusi ahal izango den moduan, Berdintasun lan-arloak bi ildo jarraituko ditu: alde batetik, iraunkorrak diren proiektuen jarraipena eta hobekuntza, eta bestetik, 2019. urtera bideratutako proiektu berriak.

Guzti hau, 2017an onartutako Berdintasun Planaren markoan garatuko da, EGKn berdintasuna zeharkako eta funtsezko balorea delako.

6.1 GAUR8

Gaur8 izeneko taldea 2016an sortu zen Berdintasun lan-arloko diskurtsoak garatu eta proeiktuetan eragin ahal izateko helburuarekin. Hala, bi urteotan, hainbat modutan funtzionatu du lantaldeak.

2019an Gaur8 proiektuari jarraipena eman nahi zaio, aurten ere berdintasunetik sortzen diren topaketa eta hausnarketetan iritzi eta zalantzak partekatzeko. Bilboko kasuan, **Eragin #Plazandre** proiektuaren eta **Zine Forum** proiektuaren euskarria izango da. Eta bertan parte hartuko duten kideak proiektuen zabalpenean laguntzen eta dinamizazioan esku-hartzen egongo dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren Berdintasun arloko diskurtsoa eratu eta eguneratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Iraunkortasuna duten proiektuak sortzea.
- Berdintasun lan-arloko erronka berriak identifikatzea eta proposamen berriak egitea.
- Berdintasun arloan dauden gazte elkarteen eta norbanakoen harremana saretzea eta sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

Gaur8 taldea osatzen duten kideekin harremana mantendu eta egingo diren bilerak prestatu.

Lantaldearekin bildu eta gai anitzekiko hausnarketak garatu.

Lantaldearen proposamenak garatu eta landu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako topaketen kopurua eta hauetan izandako partaidetza.
- Topaketetan ateratako diskurtsoen nolakotasuna.
- Lortutako sare eta harreman berriak.

6.2 ZINE FORUM

Gaur8 lantaldean ateratako ondorioetarik abiatuz, EGKren berdintasun arloko diskurtsoa garatzeko proiektu berritzaile bat egitea izan da. Modu honetan, lehen aipatu bezela Gaur8 osatzen duten kideak biltzen jarraitzuko dute, baina aldi berean, beste formatu bateko proiektuak garatuko da jende gehiago biltzeko eta errepresentazio handiagoa lortzeko.

Hala, 2019an, Bilbon Zine Forum bat burutuko da. Metodologia honen bidez, aniztasunari buruzko filmak errproduzituko dira eta ondororen solasldia egongogo da hainbat gairi buruz hausnartu eta ondorioak atera ahal izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko berdintasuneko diskurtsoa lantzea eta datozen urteetan aurrera eman daitezkeen proiektuen ideiak biltzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Zine Forum metodologiaren bidez anistasuna lantzea.
- Pertsona gazteen hausnarketak indartzea.
- Berdintasun eta LGTBI+ gaien inguruan interesa duten gazteen sarea eratzea.

Garapena

EKINTZAK:

Erreproduzituko diren filmak pentsatu eta horien kudeaketa egin.

Filmak erreproduzitu eta eztabaida dinamikak sortu.

Saioetan ateratako ondorio eta hausnarketak bildu eta horien gaineko lanketa egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Ebaluazioa

- Etorritako pertsona kopurua eta horien profilaren aniztasuna.
- Saio bakoitzean ateratako hausnarketen edukia.
- Eratutako sarearen nolakotasuna.

6.3 I BERDINTASUN PLANA

Berdintasunarekiko konpromisoa modu eraginkorrean hartu nahi duen orok, beharrezkoa du konpromiso hori neurri ezberdinen bidez burutzea. Hala, 2017an EGKren **I. Berdintasunerako Plana** onartu zen eta ordutik abian izan da; EGK-re testuinguru zehatzera egokituriko neurri eta ekintza ezberdinen bidez.

2019an, beste urteetan bezalaxe, **I. Berdintasun Plana**ri jarraipena eman nahi zaio, ezarriak dauden irizpideak jarraituz eta EGKren funtzionamenduan berdintasuna funtsezko elementu bilakatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren barne nahiz kanpo lanean berdintasuna zeharkako balore gisa errotzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasun Planean zehaztuak dauden neurriak inplementatzea.
- Ezartzen diren neurrien jarraipena eta balorazioa egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Planaren neurrien garapena.

Planaren neurrien ebaluaketa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ekintzak aurreikusita dauden epeak.
- Neurrien inpaktuen balorazioa.
- Neurrien eraginkortasunaren ebaluazioa.
- Urte bukaerako ebaluazio osoa.

6.4 GUNE ANITZA

Gune Anitza Berdintasuna eta Aniztasunarekiko aldekotasuna erakusten duen zigilua da, eta hau EGKren Berdintasun arloko proiektu iraunkorretako bat da.

2018. urtean zigiluan interesa izan zezaketen espazioen bilaketa eta harremantzea urte guztian zehar egitea pentsatu zen, baina, egindako balorazioaren ondoren, 2019an bilaketa hori urte hasieran egitea erabaki da. Gainera, aurten Gune Anitza ezagutzera emateko bideo bat eta ezagutzera emateko kanpaina bat egin nahi da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Berdintasuna eta Aniztasunarekiko aldekotasuna erakustea eta hauekiko gazteek dituzten proposamenak gune ezberdinetan txertatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gune Anitz gehiago lortzea.
- Atxikitako espazioen ebaluazio bat egitea.
- Hobekuntza proposamenak eguneratuak mantentzea.

Garapena

EKINTZAK:

Gune Anitza zigilua interesgarri gerta dakieken guneen bilaketa eta horiekin harremanetan jartzea.

Gune Anitza ezagutzera emateko bideo baten diseinua eta lanketa.

Gune Anitza ezagutzera emateko bideoaren argitalpena.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lortutako espazio berrien zenbatekoa eta horiekin izandako difusioa nolako izan den.
- Aurreko urteetan atxiki diren espazioen jarraipena nolakoa izan den.

6.5 BERDINTASUN PROTOKOLOAK

EGK-k Berdintasunaren aurkako Indarkeria mota ororen aurrean duen diskurtsoa garatu eta bere eragina hobetzeko, 2016an salaketa publikorako Berdintasun Protokoloak diseinatu zituen eraso matxista eta LGTBI+ fobikoen aurrean esku-hartzeko. Protokoloen onarpena Batzar Orokorraren bidez egin zen.

2019n, azken urteetan bezala, protokoloen erabilera egiten jarraituko du EGK-k. Horretarako, eman diren ustezko erasoak identifikatu, informazioa eskuratu eta salaketa publikoak egingo ditu. Gainera, egiten dituen prentsa oharretako datuen eguneraketa egingo du urte honetan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Eraso matxista eta LGTBI+ fobikoen aurrean Berdintasun Protokoloak aktibatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasun Protokoloak eguneratzea.
- Berdintasun Protokoloen eragina mantentzea.
- EGK-k Berdintasunarekiko duen konpromisoa berrestea.

Garapena

EKINTZAK:

Albisteen jarraipena eta ematen diren erasoen informazioa biltzea.

Protokoloen eguneraketa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Ebaluazioa

- Protokoloen eraginkortasuna.
- Protokoloak aktibatzerako orduan eman diren aukera eta zailtasunak.

6.6 FESTETAKO ERASOEN AURRE DIAGNOSIA

Berdintasun Protokoloen onarpena eman zenetik, EGK-k askotan aktibatu ditu protokoloak. Hala ere, udarako jaien inguruan ematen den aktibazio kopurua oso esanguratsua dela identifikatu zen 2018an.

EAEko testuinguruan herri-festek eta hauen inguruan sortzen diren talde antolamenduek indar handia izan dute urte luzeetan zehar. Eta festa eta gozamenerako tartea izaten den arren, jarrera matxista eta LGTBI+ fobikoak ere ematen dira. Gainera, ekintza kolektiboak diren neurrian, gizartean eman diren eta ematen diren aldaketak islatzen dituzte.

Hori dela-eta, 2019an eremu hau ikertzea garrantzitsutzat jo da ematen diren desberdintasun eta gatazkak identifikatzeko. Hala, festak eta EAEko gazteak barnebilduko dituen aurre diagnosi bat egin nahi da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Jaietan ematen diren erasoen aurrean udalek (berdintasun- eta kultura-sailak) eta herri eragileen (jai-batzordeak, mugimendu feminista eta herritarrak) artean dauden harremanak aztertzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Mugimendu feministek jai ereduen aurrean egindako lana aztertzea.
- Jaietan ematen diren erasoen aurrean dagoen erantzun instituzionala zein den ikustea.
- Hartzen diren neurri politikoen azterketa egitea.
- Etorkizunean maila instituzionalean sortu daitezkeen politika publikoei buruz hausnartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Festa inguruko botere harremanen marko teorikoaren lanketa.

Eragile ezberdinekin elkarrizketak.

Aurre diagnosia garatzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Aterako diren ondorioak.
- Egindako lanarekin etorkizunean egin daitekeen lanketaren eraginkortasuna.
- Sortutako harremanak.

6.7 MAHAI INGURUA

Azken urteetan mugimendu feministaren aldarrikapenak agenda politikoan sartu dira eta Berdintasun politiken instituzionalizazioa eman da (berdintasun teknikarien profesionalizazioa, berdintasun planen sorrera, eraso matxista eta LGTBI+ fobikoen protokolizazioa...). Honek, politika publikoetan eragina izan du. Hala ere, emakume gazteen prekarizazioa nabarmena da oraindik. Zergatik? Zein da arazoa? Politika publikoetan behar besteko eragina izan du?

Zalantza horiek eta beste batzuk argitzeko, 2019an emakume gazte politikariekin mahai inguru bat gauzatuko da berdintasun politikek agenda politikoan zer nolako indarra eta eragina duten jakiteko.

Proiektu hau parte-hartze lan-arloarekin batera koordinatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Berdintasun politikek agenda politikoan duten garrantzia eta eragina aztertzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasun neurrien analisi orokorra gauzatzea.
- Dauden oztopo eta zailtasunak zeintzuk diren ikustea.
- Berdintasun politikak hobetzeko izan daitezkeen tresnak identifikatzea.
- Gazteen artean berdintasun politikei buruzko eztabaida sortzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Topaketaren diseinua egin EGK-ko teknikarien arteko koordinazio bileren bidez.
- Ekitaldiaren antolaketa eta deialdiaren zabalpea.
- Mahai ingurua gauzatu.
- Ekitaldiko ondorioak atera eta ebaluazioa egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bertaratutako gazte kopurua.
- Ateratako ondorioen nolakotasuna.

6.8 ERAGIN #PLAZANDRE

EGK-ko hitzaldi, topaketa eta dinamiketan parte-hartzea orokorrean maskulinoa zela ikusita, Euskadiko emakume gazteek espazio publikoan duten parte-hartzea nolako den aztertu nahi izan zen 2018an. Horretarako **#Plazandre** ekitaldia garatu zen urriaren 31n UPV/EHU-ko Bizkaia Aretoan.

Topaketa horretan bildutako hausnarketa eta ideiak pilatuz ondorio-txosten bat egin zen, *Eragin #Plazandre*. Parte-hartzeari, espazio publikoetan hitz egiteari eta ahalduntzeari buruz hitz egiten du txosten honek eta 2019an honen aurkezpena egin nahi da.

Aurkezpena EGK-ko elkarteei zuzenduta egongo da, izan ere, txostenaren testuinguraketa eta ondorioen azalpena izateaz gain, Euskadiko emakume gazteen errealitatea eta EGK-ko elkarteetako emakumeen errealitatea alderatuko da. Antzekotasunak bilatu eta EGK barruan ere parte-hartze modu berriak sortzeko.

Proiektu hau parte-hartze lan-arloarekin batera koordinatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- **#Plazandren** ateratako ondorioak EGK-ko elkarteekin partekatzea eta EGK-ko elkarteen artean ematen den parte hartzeari buruz hausnartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- *Eragin #Plazandre* txostena aurkeztea.
- Bertan ateratako ondorioak zeintzuk diren azaltzea eta horiek EGK-ko errealitatearekin alderatzea.
- Etorkizuneko ildo berriak jorratzea.

Garapena

EKINTZAK:

Eragin #Plazandre ekitaldiaren diseinua egin.

Ekitaldia antolatu.

Eragin #Plazandre ekitaldia gauzatu.

Aterako diren ondorio eta hausnarketak landu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Etorritako pertsona kopurua.
- Burutuko den eztabaidaren nolakotasuna.
- Aterako diren ondorioen eraginkortasuna.

6.9 ISLAMOFOBIA

Proiektu hau bakea eta bizikidetza lan-arloarekin elkarlanean egingo da. Plangintza garatuko atal horretan, zehazki 6.7. puntuan, azaldu da sakonago.

6.10 "HAZIAK ASTIALDIRA" HEZKIDETZA ASTIALDIAN LORATZEKO LANKETA

Proiektu hau hezkuntza lan-arloarekin elkarlanean egingo da. Plangintza garatuko atal horretan, zehazki 5.3 puntuan, azaldu da sakonago.

6.11 EGUNEROKOTASUNA

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbesteko dute kontuan izatea urtean zehar beharrezkoak izango diren barne nahiz kanpo koordinaziorako bilerak, baita ager daitezkeen bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukerak ere. Gainera, Berdintasun lan-arloaren kasuan, gaiak berak dakarren zeharkakotasuna eta I Berdintasun Planaren barne neurriak ezarri behar direla kontuan izanik, barne lanak pisu handia hartuko du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko beste lan-arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraiki ahal izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egitea.
- Beste lan-arloetako berdintasun ikuspegiko ekarpenak egitea.
- Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta Berdintasun Planaren ebaluazioak egitea.
- Hedabideetan agertzea, hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte hartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Bilera mota desberdinak egin.

Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta Berdintasun Planaren ebaluazioak egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bilera kopurua.
- Ezarritako Planeko neurrien eraginkortasuna.
- Aurreikusita ez zeuden proiektu berrien kopurua.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

7. KOMUNIKAZIOA



2019an komunikazio lan-arloaren helburu nagusia Euskadiko Gazteriaren Kontseilua ezagutaraztea izango da, bai lan-arloaren proiektu propioekin eta baita gainerako lan-arloen proiektuen bidez ere. Horretarako, eskura dauden eta jarraian sakondu eta zehazten diren baliabideak erabiliko dira. Lan honetan, komunikazio teknikaria beste lan-arloekin elkarlanean arituko da.

7.1 DISEINATZAILE GAZTEEN LAN-POLTSA

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi

Diseinatzaile gazteen lan-poltsa
Bolsa de trabajo de personas jóvenes diseñadoras

Aurreko urteetan bezala, EGKren Lantalde Teknikoak izango dituen beharrak aurreikusita, diseinatzaile gazteen lan-poltsarekin elkarlanean arituko da elkarteen plataforma. Horretarako, lehenik 2018tik lan-poltsan dauden diseinatzaileetatik geratuko direnak erabaki dira eta, ostean, beharko diren diseinatzaile profilak ikusita deialdi berria egingo da, honekin batera hauen aukeraketa ere eramango delarik aurrera.

Horretaz gain, 2018ko maiatzaren 25ean indarrean sartu zen Datu Babesen legea bermatze aldera, hau betetzeko beharrezko neurriak hartuko dira administrazio teknikariarekin batera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-k 2019an zehar izango dituen diseinu lanak egiteko diseinatzaile gazteen lan-poltsa osatzea.
- Diseinatzaile gazteei aukerak ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k bere eguneroko lana zabaltzeko beharrezkoak diren euskarrien diseinua, maketazioa, etab. Euskarri hauek kartelak, eskuorriak, liburuxkak, txostenak.. izango dira.
- EGKren hainbat kontzeptu zabaltzeko irudi espezifikoak gauzatzea.

Garapena

EKINTZAK:

2018an diseinatzaile gazteen lan-poltsa osatzen zutenen ebaluazioa.

Lantalde Teknikoaren behar diren profil berriak pentsatu.

2019ari begira deialdi berria egin eta CV eta porfolioak jaso.

Urtean zehar Lantalde Teknikoaren beharrak kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Teknikari bakoitzak diseinatzaile batekin lan egin ostean ebaluazioa egingo du. Urte amaieran, diseinatzaile bakoitzaren ebaluazio orokorra egingo da (baliteke behin baino gehiagotan lan egitea diseinatzaile berdinarekin) eta orduan erabakiko da 2020ko lan-poltsan nork jarraituko duen eta nork ez.
- Aurkeztutako produktuek zer nolako erantzuna izan duten: administrazioen balorazioa, Batzorde Iraunkorraren iritzia, Lantalde Teknikoaren ebaluazioa, gazteengandik jasotako erantzuna, etab.
- Ezarri diren beharrak aztertu nahikoak izan diren ala ez ikusteko. Ezetz izanez gero, deialdi berriari begira behar horiek gehitu.
- Datu Babeseko legea betetzeko neurriak bete diren ala ez

7.2 PIZTU! BULETIN DIGITALA

Piztu! buletin digitala bi edo hiru astean behin bidaltzen zaie harpidetu diren gazte, gazte-elkarte, norbanako eta administrazioei. Gazteek gazteentzat egindakoa da, eta bertan, besteak beste, honako edukiak biltzen dira:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarteen jarduerak.
- Bestelako gazte eragileen jarduerak.
- Euskadiko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldiak.

2018ko maiatzaren 25eko Datuen Babesa betetzeko legean ezarritako prozeduren harira, Piztu! buletinaren harpide kopurua asko jaitsi da. Hori dela-eta, 2019an zehar komunikazio teknikaria lantalde teknikoarekin koordinatuko da kopurua handitzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK), gazte elkarteen eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikusaraztea eta balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarteen eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikusarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60 gutxienez euskaraz).
- Gazteriak dituen proposamenak eta eskaerak aditzera ematea.

- Gazteek dituzten proposamenak ere espazioen kudeaketarako gomendioetan txertatzea eta gazteen diskurtsoa balorean ezartzea.
- Harpidedun kopurua igotzea.

Garapena

Piztu! Buletin digitala bi edo hiru astean behin bidaltzen da, EGK-k egunerokoan sortzen dituen albisteen araberakoa da maiztasuna.

EKINTZAK:

Piztu! buletin digitala kudeatu.

Lantalde Teknikoarekin koordinatu ekitaldi eta proiektuetan Piztu!-ra harpidetzeko orrial eraman daitezen.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Komunikazio arloak Piztu buletinaren ebaluazioa egingo du urte-amaieran, aldez aurretik finkatutako irizpideak jarraituz:

- Maiztasuna: Bi astean behin bidaltzearena bete den ala ez
- Harpidedun kopurua: 2018an indarrean sartu zen Datu Babeseko legearengatik hainbeste jaitsi zenez kopurua, 2019an ea nolako gorakada eman den.

- Albisteen aniztasun maila.
- Buletinean agertutako eragileen aniztasun maila.
- Jasotako iradokizunak. Lortutako eragile eta administrazio sarearen inplikazioa eta eragileen kopurua.
- Lortutako inpaktu maila: getResponde bidez, bidalitako Piztu bakoitzaren estatistikak lor daitezke.

7.3 SARE SOZIALAK KUDEATU

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) hainbat sare sozial erabiltzen ditu hainbat helbururekin. Batetik, lanerako garrantzitsua izan daitekeen informazioa jasotzeko; bestetik, eguneroko lana ezagutarazteko eta, azkenik, gazteei, elkarteei eta bestelako eragileei zerbitzua emateko.

EGK-k dituen sare sozialak honakoak dira: Twitter, Facebook, Instagram, Linkedin, Google+ eta YouTube dira. Lehen hiruetan edukia ia egunero eskegitzen da (Twitter eta Instagramen egunean behin baino gehiagotan). Bestetik, Linkedin eta Google+ EGKren albisteak (webgunekoak batez ere) posizionatzeko erabiltzen dira. Eta, azkenik, YouTube. Azken urteetan hasitako ibilbide berria jarraituz, 2019an zehar ekitaldi ororen ostean bertan laburpen bideo bat eskegitzea da asmoa, edukia egon dadin eta ostean webgunean eta eragile ezberdinei bidalitako emailetan elkarbanatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKrentzat garrantzitsua izan daitekeen informazioa biltzea.
- Gazteei eta gazte-elkarteei zerbitzu bat eskaintzea.
- EGKren marka kudeatzea eta gai ezberdinen gainean bere posizionamendua plazaratzea.
- Erabiltzaileekin elkarrizketa sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte elkarteen azken albisteak gertutik jarraitzea eta gazteria arloko bestelako eragileen azken orduaren berri izatea ere.
- EGKren azken albisteen berri ematea.
- Gazte eragileen albisteen eta agenda-deialdien berri ematea.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak ematea.

Garapena

Sare sozialen kudeaketa urte osoan zehar egiten da. Ia egunero hainbat bilaketa egiten dira EGK-k dituen sareetan eta baita Googlen ere. Zer esan den EGKri buruz, zer nolako oihartzuna izan duten aurkeztutako proiektuek eta hauen ondorioz izandako agerraldiek, EGK-k indarrean dituen protokoloak direla-eta gertakariren bat egon den, etab.

Horretaz gain, EGKrekin zerikusi zuzena edo EGK-ko lan-arloekin lotura duen informazioa eskaintzen da, erabiltzaileekin interakzio handiagoa bilatzeko eta EGKren marka indartzeko.

Azkenik, tarteka-marteka, ebaluazioa egiten da: interakzioa, irismena, jarraitzaile kopurua, elkarreragina, etab. Horretarako sare sozial bakoitzak eskaintzen dituen erremintak erabiltzen dira, ebaluazio atalean zehazten den bezala.

EKINTZAK:

Sare sozialak kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Sare-sozialen kudeaketaren ebaluazioa egiteko, hainbat tresna erabiltzen ditu komunikazio teknikariak:

Facebook orrialdearekin sare sozialak berak ematen dituen baliabideak erabiltzen dira. Hauei esker argitalpen bakoitza zenbat pertsonek atsegin duten jakin daiteke, zenbatek elkarbanatu eta zer nolako irismena izan duen, hau da, zenbat inpaktu izan dituen. Horretaz gain, hilero estatistika orokorragoak ateratzen dira. Era honetan estrategia eralda daiteke, eta, kanpaina zehatzak eginez gero datu konkretuak lor daitezke.

Twitter profilarekin sare sozialak eskaintzen duen Twitter Analytics erabiltzen da, interakzioa, irismena eta bestelako datu esanguratsuak lortzeko. Kasu honetan ere hilero estatistika orokorragoak ateratzen dira. Era honetan estrategia eralda daiteke, eta, kanpaina zehatzak eginez gero datu konkretuak lor daitezke.

Instagramen argitalpen bakoitzak duen irismena begiratzen da, ikustaldiez gain zer nolako interakzioa egon den aztertzeko. Era berean, egindako storyek izandako bilakaera eta tarteka jarraitzaile kopuruan izandako aldaketak kontuan izango dira.

Azkenik, proiektu garrantzi bakoitzean erabiltzen den traola aztertzen da.

2019rako helburua hauetan sakontzea da, erabiltzaileek EGK-ko sareekin duten harremanari buruz ahalik eta informazio gehien ateratzeko.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

7.4 WEBGUNEEN MANTENUA



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bere eguneroko lana egiteko hainbat webgune ditu, bakoitza bere domeinu, zerbitzari eta mantenuarekin. Horretarako, kanpo enpresak hautatu dira. Horretaz gain, bai Lantalde Teknikoa zein Batzorde Iraunkorra komunikatu ahal izateko Gmail kontu bat dute (bigarrena soilik orokorra da).

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren webgune orok (www.egk.eus, prekarioka.org, astialdiforoa.org eta atergune.astialdiforoa.org) ondo funtzionatzea
- EGKren Lantalde Teknikoak eta Batzorde Iraunkorrak helbide elektronikoa izatea eta honek ondo funtzionatzea..

Garapena

EKINTZAK:

Gazte bat etxe-kaleratzen duten kasuetarako protokolo baten beharrari buruzko hausnarketa bideratu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Webgune orok urtean zehar zein arazo izan dituen eta hautatutako enpresek emandako erantzuna hauen aurrean.

7.5 WWW.EGK.EUS WEBGUNEA KUDEATU

EGKren webgunea, www.egk.eus, elkarte plataformaren tresna eraginkorrena da Lantalde Teknikoak egiten duen lana islatzeko: lan-arlo bakoitzaren azken albisteak, lan deialdiak, antolatutako ekintza eta proiektuen berri eman, lantaldeen bilerak jakinarazi eta sortzen diren

produktuak (bideoak, txostenak, etab.) publikatu, EGK-ko elkarteen informazioa eskaini, gazteei bideratutako ekimenak agendan txertatu, etab.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-k egiten duen lanaren berri ematea.
- EGK osatzen duten elkarteen berri ematea.
- EAEko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldien berri ematea (albisteetan nahiz agendan).

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren azken albisteen berri ematea.
- EGKren argitalpenak (berriak eta azken urteetan egindakoak) Interneten eskuragarri jartzea.
- EGK-k dituen gela eta materialen lagapena kudeatzea.
- EGK-ko Lantalde Teknikoko kideekin harremanetan jartzeko prozesua erraztea.
- EGK-ko elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarteen jardueren berri ematea, webguneko agendan.
- EAEko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldi, proiektu edo egitasmoen berri ematea webguneko agendan.
- Elkarteen zerrenda gaurkotu bat mantentzea.

Garapena

Webgunearen kudeaketa urte osoan zehar garatzen den lana da, hau da, albisteen atala EGKren eguneroko lanarekin hornitzea eta agendan EAEko gazteak protagonista dituen edo haientzat interesekoak diren ekitaldi, egitasmo edo proiektuak jasotzea egunero egin beharreko lanak dira. Horretaz gain, webguneak behar duen bezala erantzun dezan, komunikazio-teknikariak

optimizatu egingo du (albiste guztiek irudi optimizatuak izatea, irisgarritasuna bermatzea erabiltzaile orori, SEO aholkuak jarraitu, etab.) Google bilatzailean kokapena hobetze aldera.

Bestetik, webgunean finkoagoak diren atalak (banerrak, elkarteen datuak, irudiak, etab.) bestelako maiztasun batekin berrituko dira. Honela, erabiltzaileek jarraipen bat nabarituko dute, baina aldi berean kanpaina berezien berri izango dute. Honekin batera, txostenak ateratzen diren heinean webgunean eskegiko dira edonork ikus eta irakur ahal ditzan.

EKINTZAK:

Webgunea kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Google Analytics zerbitzuaren bitartez www.egk.eus webguneak jasotzen duen erabiltzaile kopurua. Aurreko urteekin alderatuko da eta, era berean, kanpaina edo informazio-zabaltze puntualak egon direnean erabileran gorakadaren bat eman den aztertuko da.
- Bestetik, bai urtean zehar eramango den estrategia zein 2020an eta etorkizunean jorratuko dena birdefinitzeko, hilabetero jarraipen bat egingo zaio.
- Webgunean Google bilatzailean duen posizioa
- Albisteen eta, orokorrean, webgunearen SEO egoera
- Publikatutako albiste, txosten edo argazki-galerietan jasotako iruzkinak.
- Lantalde Tekniko eta Batzorde Iraunkorraren iritzia.

7.6 EGK EZAGUTARAZTEKO BIDEOAK

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi

Gazteek, hau da, EGKren publiko nagusiak, informazioa kontsumitzeko ohiturak aldatu dituela ikusita, beharrezkoa da sortutako diskurtsoa, txostenak, proiektuak eta bestelakoak transmititzeko moduak aro berri honetara ere moldatzea. Sare sozialetan eta komunikazioan jorratzen hasitako bidearekin jarraituz –besteak beste, ikus-entzunezko edukiei bultzada ematea–, EGK-k bere ibilbidean garatutako diskurtso garrantzitsuenak eta 2019 urtean zehar sortzen doazen diskurtso, proiektu eta egitasmoak bideo bidez azalduko dira.

Era honetara, bideratzen garen hartzaileen ohiturak aldatu direnez, EGK-k haiekin harremantzeko duen modua ere eraldatuko du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-k bere hartzaileekin harremantzeko duen modua eguneratu

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren proiektuak ezagutarazi eta parte-hartzea handitu.
- Orain arte sortu diren diskurtsoak beste modu batera helarazi
- EGKren marka sendotu.

Garapena

EKINTZAK:

- EGK-k orain arte egindakoa, diskurtsoak, proiektuak, etab. ezagutarazteko egingo diren bideoen zerrenda osatu eta garrantziaren arabera ordenatu
- Bideoak egiten joan
- 2019an egindakoaren ebaluazioa, behar berriak identifikatu, zerrenda berriro ere garrantziaren arabera antolatu

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Egindako bideoan ikustaldiak, izan duten harrera (iruzkinak, sareetan erreakzioak, administrazioek esandakoa, EGK-ko elkarteen iritzia, etab.).
- Egindako bideoen bidez diskurtsoa ondo azaldu den ala ez
- Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren iritzia.

7.7 LAN-ARLOKA SAREA OSATU

Gazteen parte-hartze ereduak eraldatu dira eta, jada, elkartegintza ez da hau bideratzen duen modu bakarra. Hori dela-eta, EGKtik garai berrietara moldatzeko esfortzua egingo da. 2018an hasitako bideari jarraipena eman nahi zaio 2019an, batetik, lan-arlo bakoitzarekin elkarlanean aritu daitezkeen eragileak identifikatuz; eta, bestetik, proiektu edo egitasmo bakoitzean interesa izan dezaketen elkarte edo norbanakoak identifikatuz. Era horretan, poliki-poliki kontaktu zerrenda osatzea eta EGKren parte-hartzea are pluralagoa izateko.

Bide honetan, 2018ko maiatzaren 25ean indarrean sartutako Datu Babeserako legea errespetatzeko neurriak hartuko dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren lan-arlo bakoitzeko harreman-sarea osatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lan-arlo bakoitzak egiten dituen lantalde, bilera edo ekimenetan parte-hartzaile kopurua igotzea.
- Elkarlanean eragile gehiagorekin aritzea.
- EGK ezagutaraztea.
- EGKren marka sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

EGK-ko lan-arloekin modu batera edo bestera elkarlanean aritu daitezkeen elkarteen zerrenda osatu.

Egindako zerrenda EGK-ko lan-arloek antolatutako ekimenetarako erabili

2019an zehar egindako agenda ebaluatu, lortu diren kontaktuekin izandako elkarlana aztertu eta 2020rako falta daitezken profilak identifikatzen saiatu..

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lan-arloka teknikari bakoitzarekin lan-arlorako sortutako sarea ebaluatu: kontaktuak nahikoak diren, bidean sortu diren berriak gehitu.
- Lantalde Tekniko eta EGK-ko elkarteen proposamenak, egonez gero, kontuan izan.

7.8 GIZARTE ALDAKETARAKO HERRITARTASUNA

Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean Gizarte Aldaketarako Herritartasuna ikasgaian parte hartuko du komunikazio teknikariak Alboan elkartea eta Loiola Etxeko kideekin batera. Proiektu honetan ikasle-talde bat laguntzea eta aholkatzea izango da bere funtzioa, parte-hartzeari buruzko eragin plan txiki bat osatu eta gizartean eraldaketa bat bilatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Deustuko Unibertsitateko ikasleak aholkatzea herritarren parte-hartzearen gaineko eragin plan txiki bat diseinatu, burutu eta ebaluatzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesgarriak izan daitezkeenekin harremanak egitea.
- Euskadiko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Deustuko Unibertsitatera joan EGK ezagutzera emateko.

Irakasgaian zehar, ikasle-taldearekin zein irakaslearekin bildu..

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Proiektuaren ebaluazio-irizpideak irakasgaian ezarrita daudenak izango dira. Bestetik, proiektuaren balorazio orokortu bat egingo da irakasle zein ikasleekin.

7.9 KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) ekintza zein EGK-k parte hartzen duen ekimenen hedapena egin. Honetan sartzen dira, besteak beste:

- Prentsaurrekoak/prentsa-oharrak egin.
- EGKren ekitaldiak hedabideen agendan argitaratzeko bidali.
- Hedabideek eskatutako elkarrizketak kudeatu, baita EGKren proiektuen aurkezpen elkarrizketak (EGK-k proposatutakoak).
- Kazetarien eskaerak/proposamenak kudeatu.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak zerrendatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Euskadiko gazteen interesekoak diren edo izan daitezkeen gaiak hedabideen eta, beraz, gizartearen agenda mediatiko eta sozialean txertatzea.
- EGKren jarduera eta iritziak, bai eta EGK-k parte hartzen duen plataforma eta
- Ekimenen jarduera eta iritziak ere, hedabideen bitartez gizarteratzea.

Garapena

- Aldian aldiko prentsaurrekoak egin, hauen ostean prentsa-oharra bidali hedabideei eta bertako albisteetan EGKren manifestu eta komunikatuak azaltzea.
- EGK-k dituen hainbat protokoloen aktibazioa eta hedapena: lan istripuen ondorioz zauritu edo hildako pertsona gazteak, Indarkeria Matxistaren eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloa eta pertsona gazteen Giza Eskubideen urraketaren harira aktibatzeko protokoloa.
- Deialdiak agendatan txertatu.
- Iritzi-artikuluak idatzi eta txertatu.
- EGK aurkezten dituen txosten, proiektu eta egitasmoen harira elkarrizketak lotu.
- Kazetari eta hedabideen datu basea eguneratua mantendu.
- Indarkeria Matxistari buruz kontzientziatu, honen hainbat forma ezagutzera eman eta EGK-k Indarkeria Matxistaren aurka lan egiten duen entitate gisa duen konpromisoa berretsi.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Gazteek bizi proiektua egiteko behar duten baldintza sozioekonomikoak bermatzeko eskaria gizarteratzea.
- Gaztedian arazo honek duen pisua eta seriotasuna gazte diskurtso batetik aztertzea
- Gazteek dituzten aurre egiteko proposamenak eta eskura dituzten baliabide desberdinak gizarteratu eta aditzera eman.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hedabideetan izandako agerraldi kopurua, baita jasotako elkarrizketa eta erreportaje eskari kopurua.
- Lortutako kontaktu berriak.

7.10 BILBO YOUTUBER AUKERAKETA

Bilbao Gazte plataformaren helburua gazteentzako egiten dena zabaltzea da, ez soilik Bilbao Gazteak edo Bilboko Udaleko Gazteria sailak antolatutakoak; Bilboko gazteentzako gainerako

sailek eta orokorrean edozein eragilek antolatzen dituen ekintzak baizik. Azken urteetan identifikatu da antolatzen dena gazteei helaraztean hobekuntzak eman daitezkeela. Eta, horietako bat, YouTuberren aukeraketa izan da, egungo planak beste modu batera helarazteko.

Bilboko Udaletxeko gazteria sailak bi YouTuber bilatzeko antolatutako lehiaketa honetan komunikazio-teknikaria epaimahaiko kide izango da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Bilbon dagoen eskaintza zabaldu eta honi buruz gazteek duten iritzia pilatzea.
- Bilboko Udala eta gazteriaren artean harremana sendotzea.

Garapena

Bilboko Udalak zehaztutako daten arabera, komunikazio teknikariak izen-ematen duten gazteen bideoak ikusiko ditu eta ostean ebaluatu. Azkenik, epaimahaiaren kide izango da YouTuber berriak aukeratzerakoan.

Ebaluazioa

Bilboko Udalak zehaztutako irizpideen arabera.

7.11 BARNE KOMUNIKAZIOA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren komunikazio oro ez da kanpora begirakoa. Barne komunikazioa ere oso garrantzitsua da, eta hau, komunikazio teknikariaren ardura da. Batetik, lantalde teknikoa osatzen duten lan-arloen artekoa; bestetik, lantalde teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren artean; eta, azkenik, EGK osatzen duten ia 60 erakundeekin. Hiru euskarri hauen funtzionamendu egokiak soilik bermatzen du EGKren funtzionamendu egokia eta eraginkortasuna.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) barne-komunikazioa hobetzea, bai lantalde teknikoa osatzen duten lan-arloen artean, bai lantaldearen eta Batzorde Iraunkorraren artean eta bai EGK eta EGK osatzen duten elkarteen artekoa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bileren denbora murriztea eguneroko komunikazioa arinagoa eginez eta hobetuz.
- Lan-arloen artean sinergiak sortzea.
- EGK osatzen duten erakundeekin harremana sendotu, haien presentziari garrantzia gehiago ematea (webgune, sare sozial, Piztu! buletina).
- Batzorde Iraunkorrean parte hartzea.

Garapena

Urte osoan zehar egingo den prozesua izango da. EGK osatzen duten elkarteekin harremanetan jarriko gara EGK-k 2016an komunikazio lan-arloan egindako aldaketak jakinarazteko (webgune berria eta haien atala nola geratu den, Piztu!-n atal berria dutela, sare sozialetan haien ekintzak zabaltzeko aukera) eta ea zein behar dituzten galdetu. Asmoa, etengabeko hobekuntza bultzatzea da.

EKINTZAK:

Barne komunikazioa kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantalde teknikoaren barne komunikazioa nolakoa izan den (teknikari eta presidenteari iritzia galdetuta ebaluatuko da).
- Teknikari eta loturen arteko komunikazioa nolakoa izan den (teknikari eta Batzorde Iraunkorreko kideei galdetuta ebaluatuko da).
- Lantalde tekniko eta Batzorde Iraunkorraren arteko komunikazioa nolakoa izan den (lantalde tekniko eta Batzorde Iraunkorrari galdetuta ebaluatuko da).

7.12 EGUNEROKOA



Plangintzan zehar zehaztutako guztiaz gain, egunerokoan beste hainbat kontu sor daitezke, besteak beste, bulegoan gerta daitezkeen kontuak, jasotako dei eta galderen kudeaketa, aholkularitza zerbitzuak, memoria eta plangintzak garatzea, etab.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Komunikazio teknikariaren egunerokoan sortzen diren bestelako kontuak kudeatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Egunerokoan sortzen diren kontu ezberdinak kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

7.13 BESTE LAN-ARLOEKIN HARREMANA

EGK-k jarduera ugari egiten ditu urtean zehar. Komunikazio lan-arloarekin zerikusi zuzena ez badute ere, teknikariaren ardura da hauen zabalpenean laguntzea eta gainerako lan-arloekin (Berdintasuna, Bakea eta Bizikidetza, Hezkuntza, Parte-hartzea, Enplegua, Etxebizitza eta Koordinazioa) elkarlanean aritzea.

Enplegua

- Emantzipa... Zer? lantaldearen deialdiak egitea (urte osoan zehar).
- Lan istripuen protokoloa
- **Gazte Label** zigilua
- Formakuntza Dualaren azterketa
- Itzulera programen azterketa
- Berrikuntza soziala formakuntza-saioak

Etxebizitza

- Emantzipa... Zer? lantaldearen deialdiak egin (urte osoan zehar).
- Etxebizitza eredu berriak aztertzeko Hiruburua aurrera eramatea
- Etxebizitza dirulaguntzen azterketa

Hezkuntza

- Astialdi Foroa eta Hezkuntza Foro lantaldeen deialdiak egin (urte osoan zehar)
- Astialdi Foroaren udako kanpaina (apirila) zabaldu: albistea eta prentsa-oharra
- Astialdi Foroaren ikastaroen kanpaina (uztaila eta iraila) zabaldu: albistea eta prentsa-oharra
- Boluntariotza kanpaina.
- Garraio gastuen azterketa

Parte-hartze

- EGK Sendotzen
- *Eragin #Plazandre* txostenaren kontrastea

Bake eta Bizikidetza

- Bake eta Bizikidetza lan-arloko lantaldearen deialdiak (urte osoan zehar).
- *Gazteon aukera* dokumentalaren zabalpena
- Diskurtso arrazisten azterketa
- Islamofobia azterketa.

Berdintasuna

- Gaur8 lantaldearen deialdiak (urte osoan zehar)

- Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloa aktibatu (urte osoan zehar).
- *Eragin #Plazandre* txostenaren kontrastea
- Berdin-hezi proiektuaren zabalpena.

Presidentzia

- 2019ko Batzar Orokorraren komunikazioa (martxoak 9)
- Presidentziarekin lotura duten beste hainbat ekintzatan parte hartu: bilerak, topaketak, hitzaldiak, komunikabideekin harremanak, ekitaldi instituzionalak, beste elkarteekin harremanak... babesa eman eta lagundu (urte osoan zehar).
- Gazteria-legea.

Gai administratiboak

- EGKren egunerokotasunean sortzen diren lantxoak kudeatu (urte osoan zehar).
- Datu Babeserako legea betetzea.

8. PRESIDENTZIA

8.1. BATZORDE IRAUNKORRA

Deskribapena

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki-organoa da. EGK-ko eskubide osoko kide diren elkarteetako 11 ordezkarik osatzen dute. Horrela banatzen da: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Batzar Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Iraunkorraren eraketa 2 urtetik behin erabakitzen da. Bere ardura da EGKren gaineko erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea.

2017an osatu zen egun Iraunkorra osatzen duen taldea eta kideek EGKren gainean daukaten ezagutzan sakondu beharko dute, batzarrean onartzen den plangintza aurrera ateratzeko ahalegina egin eta urtean zehar, dagokion erabaki berriak hartu. Horrez gain, 2019an batzorde iraunkorrean osoa

Bestalde, Presidenteak zubi lana egiten jarraituko du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean. Batzorde Iraunkorraren bileretara teknikariak azalduko dira, txandaka. Hartara, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da Batzorde Iraunkorrean eta erabakiak hartzeko era erraztuko da.

Azkenik, Presidentziatik Batzorde Iraunkorra gai guztien berri emateko lana egingo du baita bileretatik at ere, telefonoz eta e-postaz nagusiki.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKri dagokion gaien gaineko erabakiak bideratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren kide diren taldeekiko komunikazioa lantzea.
- Batzorde Iraunkorra osatu, gorpuztu, taldetasuna lantzea.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna sustatzea.
- Ardura banaketa bermatzea.
- B.I.kideen parte hartzea sustatzea.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Batzorde Iraunkorraren bilerak

Lan Talde Teknikoarekin bilerak

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Gizarte-oihartzuna.
- Elkarteen erantzuna.

8.2. LAN TALDE TEKNIKOAREN KOORDINAKETA

Deskribapena

Lan Talde Teknikoa EGK-ko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan lan egiten du egunero, eta denen artean proiektu guztiak kaleratzen dira; hau da, nahiz eta arlo bateko proiektua izan, denen eskuetatik pasatzen dira egitasmo guztiak, EGKren diskurtsoarekin bat etor daitezen eta koherentzia bermatu dadin.

Presidentziaren aldetik lan taldearen kohesioa eta koordinazioa bilatuko dira eta zubi lana egingo da Batzorde Iraunkorraren eta Lan Talde Teknikoaren artean, aurrenekoan hartutako

erabakiak bigarrengora eraman eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko. Hala, bi Batzordeen dinamikak uztartuko dira.

Lan Talde Teknikoa hilabetean behin elkartzen da txandaka hiru egoitzetan. Bilera hauen deialdia eta dinamizazioaren ardura presidentearenak dira. Horrez gain, ostiralero Skype bidezko bilera teknikoak egiten dira.

Aurten ere, teknikari berriak sartu eta teknikari baten erreleboa egongo dira. Aukeraketa prozesua Presidentziatik koordinatzen dira Batzorde Iraunkorraren laguntzaz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Lan taldearen kohesioa eta koordinazioa bermatzea.
- Lan taldearen beharrei erantzuna ematea.
- Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean zubi lana egitea.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Lan Talde Teknikoaren bilerak

Batzorde Iraunkorrarekin bilerak

Aukeraketa prozesua

Egunerokotasuna

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluaketa eta irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Teknikarien arteko koordinazioa.
- Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren arteko informazio trukaketa.
- Gatazka eza
- Kontratu berriak gauzatzea

8.3. BATZORDE EKONOMIKOA

Batzorde Ekonomikoak EGKren aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu eta kudeatzen ditu. Batzorde Ekonomikoa EGK-ko idazkariak (administrari-lana burutzen baitu), diruzainak eta presidenteak osatzen dute. Hitzarmenen bidez lortutako diru-laguntzak, elkarteen kuotak eta bestelako diru-sarrerak kudeatzen dituzte eta unean-uneko gastuak eta egoera ekonomikoa zaintzen dituzte.

Batzorde honetan 2019ko aurrekontuaren kudeaketa egingo da, eta Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, administrazioarekin hitzarmenak negoziatuko dira. Honez gain, beharrezkoak izango diren gastuak baloratu eta onartuko dira.

Gainera, hurrengo urteari begirako hitzarmenak prestatuko dira eta aurrekontuaren aurreikuspena egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egitea.
- Alor honetan unean uneko erabakiak hartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 201eko aurrekontua prestatzea.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatzea.
- Diru sarrera eta gastuen gaineko jarraipena egitea.
- Balantze ekonomikoa prestatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Batzorde Ekonomikoaren bilerak

Aldundiekin bilerak

Eusko Jaurlaritzarekin bilerak

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egoera ekonomikoa.
- Egindako bilerak eta hauen eraginkortasuna.
- Diru-sarrera eta gastuen arteko oreka.
- Hurrengo urterako aurreikuspena.

8.4. EGK-ko BATZAR OROKORRA

EGKren Batzar Orokorra urtero ospatzen da. Bertan, EGK-ko kide diren elkarteei aurreko urteko memoria eta urte horretarako plangintza aurkezten zaie, onartu edota atzera bota daitezen. Gainera, kide berrien sarrera bozkatzen da eta EGKri dagozkion erabaki garrantzitsuenak adosten dira.

Bi urtetik behin Batzorde Iraunkorraren eraketa erabakitzen da Batzar Orokorrean eta aurten horrela izango da.

Batzarraren prestaketa Batzorde Iraunkorrari badagokio ere, presidentea da Batzarreko Mahaiko arduraduna eta Batzarra bera dinamizatzen duena.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- 2019ko Batzar Orokorraren koordinaketa eta dinamizatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Batzarrerako beharrezko dokumentazioa prestatzea.
- Aldez aurretik elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztea.

Garapena

EKINTZAK:

Memoria eta plangintzaren prestaketa.

Elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu.

Kidetze eskaerak jaso eta aurkeztu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Batzarraren eraginkortasuna
- Elkarteen iritzia

8.5. ELKARLANA ETA ORDEZKARITZA

8.5.1. EUSKO JAURLARITZA

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean Eusko Jaurlaritzarekin, EAE mailako elkarlanerako guneak konpartitzen dituztelarik. Gainera, EGKren finantziazio-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik dator.

Aurten, EGKren lana balioan jartzeko ahaleginean jarraituko da. 2018an, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin harremana mantendu da: Bake eta Bizikidetza Idazkaritza Nagusiarekin, Enplegu Zuzendaritzarekin, Hezkidetza Planarekin, Kanpo Harremanetako Zuzendaritzarekin, Emakunderekin eta Etxebizitza zuzendaritzarekin. Lortutako emaitza arrakastatsuetan oinarrituz, 2019an elkarlan horiekin jarraitzea da asmoa.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- Elkarlanerako guneak identifikatzea.
- Eragin politikoa izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Zuzendaritza eta idazkaritza ezberdinekin informazio trukaketa bermatzea.
- Lankidetza sustatzea.
- EGKren aurrekontua egonkortzeko lana egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Informazio trukaketa bilerak

EGKren lana balioan jartzea

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Lankidetza gune berrien sorrera.
- Aurrekontuan eragina.

8.5.2. ALDUNDIAK

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin ere gazteen egoera, behar eta interesen inguruan lan egiten da. Horretarako, 2019an lurralde historiko bakoitzeko Foru administrazioarekin harremana mantentzeko ahalegina egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Elkarlanerako guneak identifikatzea (Gaztematika, GazteBiz, gazteen egoera sozioekonomikoa, elkartegintzaren errealitatea...)

HELBURU ZEHATZAK:

- Lankidetza sustatzea.
- Hitzarmenetako aurrekontuak bermatzeko lana egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Elkarlanerako guneen identifikazioa.

Aurrekontuaren inguruko lanketa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna
- Bileren eraginkortasuna
- Lankidetza gune berrien sorrera
- Lankidetzaren eraginkortasuna
- Aurrekontuan eragina

8.5.3. EUSKO LEGEBILTZARRA

Bere jardueren eta asmoen berri emateko, EGK-k agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean, Gazteria Batzordearekin bilduaz. Urtean behin gutxienez ohiko agerraldia egiten du ordura arte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Horrez gain, EGK-k zenbait proiektu eta horien ondorioak plazaratzeko agerraldi eskaerak egin ohi ditu.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero, gai zehatzen gainean erantzuna emateko, bertaratu eta hala egingo da. 2014ean Gazteen Lantaldea abian jarri zenez, parte hartze aktibo bat izateko ahalegina egin da, baina taldearen aurrera pausoen arabera izango da.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Azkenik, Legebiltzarreko alderdi ezberdinekin ere bilerak izaten dira gazteriaren gaineko kezka nagusiei buruz hitz egiteko, EGKren egitekoaren berri emateko edo bestelako kontuetarako.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Legebiltzarkideei EGKren jardueraren berri ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ohiko agerraldian memoria eta plangintza aurkeztea.
- Legebiltzarkideen agerraldi-eskaera eta galderei erantzuna ematea.
- Erakundeei eta gizarteari gazteen egoeraren berri ematea.

Garapena

EKINTZAK:

Ohiko agerraldia

Agerraldi eskaerei erantzuna eman

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Agerraldien maiztasuna.
- Agerraldien kalitatea eta eragina.

8.5.4. BATZAR NAGUSIAK

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Lurralde Historiko bakoitzeko gazteria politiken inguruko hausnarketa eta gazteen egoeraren inguruko datu eta informazioa Batzar Nagusietan plazaratzeko ahalegina egiten da agerraldien bitartez.

Horrez gain, hitzarmena sinatu aurretik, aurrekontu garaian, EGK-k bere jardunaren berri ematen saiatzen da alderdi ezberdinekin bilduz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Elkarlana sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren presentzia instituzioetan egonkortzea.
- EGKren egitekoaren berri ematea.
- Lurraldeko gazteriaren egoeraren berri ematea.
- Hitzarmenak negoziatzea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA :

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Ebaluazioa

- Agerpenen maiztasuna eta eragina.
- Hitzarmenak lotzea.
- Komunikabideen erantzuna.

8.5.5. UDALAK

Bere izaera juridikoa eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak instituzioekin hartu emana izaten du, baita zenbait Udaletako Gazteria sailarekin ere.

Oro har, EGKren ekarpena gazteria politikei egiten zaie Gazte Planak edo bestelako proiektuen bitartez. Horietarako, eratuta dauden estrukturetan parte hartzen da, foroak, eztabaida mahaiak eta abarren bitartez.

Tarteka, kolaborazio hitzarmenak ere sinatzen dira. Harremana edozein dela ere, harremana mantentzea, bilerak egitea, hitzarmena adostea, sinatzea eta koordinatzea... presidentziaren bitartez burutzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Politika publikoetan eragitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana eta ondorioak zabaltzea.
- Gazteriaren egoeraren berri ematea.
- Gazteria politikei ekarpenak egitea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna eta eragina
- Hausnarketen sakontasuna
- Kolaborazio hitzarmenak sinatzea-berritzea

8.5.6. BESTE ERAKUNDEAK

Urtean zehar Gazteria politiketan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbait eragile eta erakunderekin ere kontaktu zuzena eta jarraitua edukitzen da presidentziatik, hala nola: Nafarroako Gazte Kontseilua, Espainiako Gazte Kontseilua, Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Eskola Kontseilua, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua ...

Horiez gain, EGK-k hainbat elkarterekin (EGK barruko eta kanpokoak) elkarlana sustatzen du: Udako Euskal Unibertsitatea, Bai Euskarari... Bi hauekin esaterako, hitzarmenen jarraipena egiten da.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren ordezkaritza egitea.
- Erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlana eta sinergiak bilatzea.
- EGKren hitza eta iritzia zabaltzea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA :

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

8.5.7 KOMUNIKABIDEAK ETA IRUDI PUBLIKOA

EGK-k izaera publikoa eta ordezkari-izaera ditu eta lantzen dituen gaiak gaurkotasunekoak eta zenbait sektoreren interesekoak dira. Hau dela eta, Kontseiluak hainbat agerraldi publiko egiten ditu, batzuk EGK-k berak deituta, beste batzuk medioek edo bestelako eragileek deituta.

Hala, 2019an zehar ere komunikabideetan, elkarrizketa eta prentsaurrekoetan, aurkezpenetan eta hitzaldietan parte hartuko da, EGKren hitza eta iritzia gizarteari helarazteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGK publikoki ordezkatzea.
- EGKren hitza eta iritzia gizarteratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Elkarrizketetan eta aurkezpen publikoetan EGK ordezkatzea.
- EGKren publikazioetarako zein komunikabide idatzietarako iritzi-artikuluak, elkarrizketak e.a. egitea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA :

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Agerpenen maiztasuna eta agerpenen eragina.
- Komunikabideen erantzuna.

8.6. GAZTERIA LEGEA

EGK-k urteetan parte hartu du Gazteria Legaren sorreraren prozesuan. Hainbat saiakera eman dira eta 2019an zehar hurrengo saiakera bat egingo da. Hori dela eta, EGK prozesuan zehar berriz ere egongo da. Hainbat bilera burutu beharko dira baita topaketak zein txostenak gaia jorratzeko. Hortaz gain, presidentziaren eskutik hainbat esparruetara gazteen ikuspegia eraman beharko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren iritzia jasotzea.
- EGKren ordezkaritza egitea.
- EGKren ikuspuntua zabaltzea

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Legearen azken emaitza
- Esandakoaren jarraikotasuna

8.7. GOBERNU IREKIA (OGP)

Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiak eta hiru hiriburuetako Udalek proiektu berri baten parte izatea erabaki zuten. OGPrako aurkeztu eta hautatuak izan ziren. Proiektu hau aurrera eramateko foro ezberdinak sortu behar zituzten eta horietako bat Foro Erregularra izan da. Foro horretan hiru administrazio mailetako ordezkariak zeuden eta baita gizarte zibilak aukeratutako ordezkariak. Azken hauen papera, gizartearen interesak zein beharrak defendatzea da. Beraz, EGKren izenean presidentzia Foro Erregularrean parte hartzen jarraitu behar du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Eragin politikoa izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen iritzia erabaki guneetara hurbiltzea.
- Gazteen ikuspuntua txertatzea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bi urteren osteko plana.
- Konpromezuen garapena.